




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1994ko iraila. 5. zenbakia. Doan banatzen da.



“Geldiro baña ziur iritxi gara”



MLARAVENDI



MLARAVENDI

MANUEL LARRAMENDI

Kultur Bazkuna

*ZU BAZKIDE
EGIN ZAI
GAUDE*

Euskaltzaleon elkartea.

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU,
BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15-1, ANDOAIN ☎ 30 07 33

2. INKESTA: Zure etorkizunaz galdezka joango al zinateke aztiren batengana?
4. BERRIAK LABUR
7. ZIKULU SALTSA: Tolosaldeko Plan Estrategikoa.
10. HERRIZ HERRI
19. ERREPORTAIA: "Erniyo-mendi! Erniyo-mendi!"
22. ELKARRIZKETA: Eulogio Iraola, 15 urtez geroztik uztargile.
24. BASERRIAN: Kaletarrek sutarako gero eta egur gehiago behar.
26. KULTURA: Urtebetez geroztik daude Billabonan ballet ikastaroak.
28. KIROLA: Billabonan xake taldea berpiztu nahi dute.
Euskaldunak futbol taldearen entrenatzaile berria.
30. ZAHARRAK BERRI: "31" Euskal Herrian nahi zaitugu.
32. BEGI ARGIA: J.J. Petrikorena: "Ezer ahora sartu gabe".
33. HEMEROTEKA
34. HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
35. MERKATU TXIKIA
36. ZURE HIZPIDEA
37. AIURRITARRAK: Teresa del Valle: "Donostiatik Asteasura"
38. LEHIAKETA
39. AGENDA
40. PASADIZUAK



OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Mainer Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian. **Laguntzaileak:** Xabier Arruti, Teresa del Valle, Joxe Eizmendi, J.J. Petrikorena. **Argazkiak:** Manu Mujika, Karmelo Marzol. **Komikia:** Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Aitziber Iraola. **Banaketa arduraduna:** Inosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Zure etorkizunaz galdezka joango

Batek daki bere etorkizuna nolakoa izango den! Dena den, zuhurrenek alde zurretik jakin nahi izaten dute etorriko zaiena, nahitaezkoari aurre egin nahian eta hartu beharreko neurriak hartzeko, beharbada. Beste askok ordea, ez dute sinesten edo nahiago dute ezjakin geratu, badaezpada... Telebistan irtetzen diren azti eta sorgin guztiak berriz, gezurti hutsak direla uste dute gehientsuenek, alegia, dirua egin nahi, eta hori besterik ez zaiela bururatu. Gauzak horrela, hona hemen gure herrietan jaso ditugun iritziak:




Martin Roteta. **Langilea. Asteasu.**

Ez, ezta pentsatu ere, ez nintzateke joango, ez horrelako gauzek beldurra ematen didatelako, sinesten ez dudalako baizik. Telebistan ateratzen diren horie buruz, zer? Hainbeste gauza ateratzen dira telebistan, horiek bezain txarrak edo okerragoak. Nere etorkizuna besteen tankerakoa izango dela pentsatzen dut, lehengo modukoa. Dena den, inork ere ez daukagu oso etorkizun onik, hala ere, oso txarra ez izatea espero dut.



Gurutze Irastorza. **Ikaslea. Zizurkil.**

Joango nintzateke, baina gauza batzuk ez nizkioke galdetuko. Oraingo gauzei buruz galdetuko nioke, ikasketei buruz adibidez. Nere heriotzari buruz adibidez, ez nioke galdetuko. Orain arte ez nuen asko sinesten baina aurten adimena kontrolatzen ikasten ari zen jendea ezagutu dut, eta orain sinesten dut. Telebistan ateratzen direnengan ez dut sinesten, dirua egiteko baino ez daude hor. Beste batzuk badaude ordea, telebistan ateratzen ez direnak, eta oso onak dira. Nik nere etorkizuna ez dakit nolakoa izango den, baina lan on bat, seme-alabak..., horrelako gauzak nahiko nituzke.



Ovidio Rafael. **Jubilatua. Andoain.**

Ni sorgin batengana joanda nago, zirkulazioa begiratzera. Eta, egia esan, joan izan ez banintz bezala geratu nintzen. Neukana ezer ez zela esan zidan, belar batzuk eman zizkidan, eta lau aldiz operatu behar izan didate ondoren. Jendea engainatu besterik ez dute egiten. Etorrizunaz galdetzeraz ez naiz inoiz joan. Hori guztia gezurra da, ez dut horretan sinesten. Nere etorkizuna hemendik aurrera ona izango da, jubilatuta nago. Gazteen etorkizuna, ez da hain ona, inon ez daukate lanik eta.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA


Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



GAROA
auto eskola

ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
20140 - ANDOAIN

al zinateke aztiren batengana ?



Ines Arrieta.

Irakaslea. Billabona.


Ez, ez nintzateke joango. Beldur pixka bat ematen didate horrelako gauzek. Sinestu, sinestu..., ez dakit, baina badaezpada. Sorgin batengana joateko aukera izan dut, kartetan etorkizuna ikusteko, baina nahiago izan dut ezer ez jakitea, gertatu beharrekoa gertatuko zait, baina nahiago dut ezer ez jakitea. Nere etorkizuna? Ona, espero dut. Orain arte behintzat, gauzak ondo atera zaizkit. Ezin naiz kexatu, oso ondo bizi naiz.



Mertxe Irazusta.

Larraulgo Hezkide Eskolako sukaldaria.

Ez, badaezpada, ez nintzateke joango, ikara pixka bat ematen dit. Nik errespetu handia diet horiei. Gauza asko asmatzen dituzte, eta badaezpada, nahiago dut ez jakin. Ez dakit sinesten dudana ala ez, zerbait badute, eta nik errespeto handia diet. Alabak batzuetan esaten dit joan behar duela, baina nik ezetz esaten diot. Nere etorkizunaz ezin dizut gauza handirik esan, lana han eta hemen eta...



Joseba Aguruza. Ikaslea. Aduna.

Ez, ez nintzateke joango. Txorrada bat iruditzen zait. Sinesten dut, baina tontakeria bat iruditzen zait. Beharbada gauza txar bat esaten dizue eta gero zure bizitza osoa gaizki pasatzen duzu. Nere etorkizuna ez dakit nolakoa izango den, igual ona izango da.

minukost minukost minukost minukost minukost minukost

Zuentzat ikasturte berrirako estilo eta marka desberdinetako eskola material eskeintza interesgarria daukaqu:

Liberto, Kamel, Naf-Naf, Chapman, Benetton, Busquets eta RS markako motxila, blok, karpeta eta klasifikagailuak

LIBURUDENDA - PAPERDENDA

minukost

KALE NAGUSIA, 20 ☎ 59 16 57 ANDOAIN

15000000 15000000 15000000 15000000 15000000 15000000



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Billabona-Zizurkil

Hiruzpalau urte igaroko dira oraindik

Billabona-Zizurkil parean egin behar diren Oria ibaiaren biderapen eta Zubimusu zubiaren konponketa edo berritze lanei ekiteko oraindik hiruzpalau urte edo denbora gehiago igaroko dela adierazi digu Eduardo Laborde Billabonako alkateak.

Bien bitartean Diputazioko Garraio eta Bide Azpiegitura departamendua prest agertu da behin-behineko zubiaren ordezk behin-betiko zubi bat ezartzeko, era honetan Zubimusun egun dauden trafiko arazoak, hein batean, konpondu egingo direlakoan. Dena den, proposamen horri erantzuteko daude oraindik Billabona eta Zizurkilgo Udalak, bat eginganda.

Orain arte Madrilgo gobernuaren esku zeuden ibaien bideratze lanei buruzko erabakiak; duela bi hilabete eskas kompetentzia hau Eusko Jaurlaritzaren eskuetan jarri zuten ordea. Baina Billabona-Zizurkil en egin beharreko ibaiaren bideratze lanak ez dira Eusko Jaurlaritzak esku artean dauzkan

bakarrak, eta aurki hauteskundeak izango direnez. Billabona-Zizurkilgo kasuaren azterketak luze joko duela adierazi zaie Gasteizetik. Honez gain, aurki kompetentzia Diputazioaren esku egongo dela ere aurreratu zaie, eta hemen ere hauteskundeak izango direnez, erabakiak are luzeago joko duela uste dute.

Hori guztia ibaiaren bideratze lanei dagokionez. Zubimusun etorkizuna baina, ez dago Garraio eta Bide Azpiegitura departamentuaren eskuetan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren eskuetan baizik. Kultura sailak dagoeneko zubiaren geroari buruzko erabakia hartuta eta onartuta dauka. Alegia, zubia botaz gero, nahitaez kokatu beharko da berriro. Oria ibaiaren arroan ez bada, Billabona-Zizurkil inguruan. Honez gain, zubia kokatu beharreko tokiak egokia izan beharko du, hau da, erabilgarria izateaz gain, monumentu artistiko izaera izango duenez, jendeak ondo ikusi ahal izango duen lekuren batean jarri beharko da. Leku aldaketaz gain, beharrezko konpontze lanak egin beharko dira derrigorrez: zubiari gerra zibila geroztik falta zaiton arkuak,



esaterako, berreraiki beharko da. Eta azkenik, zubia desmontatu eta berehala egin beharko da leku aldaketa, luze igaro gabe. Besteak beste, baldintza guzti horiek lanak asko garestiko dituzte; lehen 75 milioiko aurrekontua aurririkusi bazen, orain 300 edo 400 milioikoa ere izan daitekeela uste dute.

Gose greba presoen egoera salatzen

Hamabost lagunek Andoinen, zortzik Billabonan eta sei Zizurkil en egin dute astebelez, hilaren 18tik 24a arte, gose greba, euskal preso politiko en kolektiboaren jasaten ari den egoera salatzeneko eta eurekiko alkartasuna adierazteneko.

Beste ekintza batzuen artean, Billabonan baldintzapeko presoen egoera eta presoen elkartzeaz hitz egin zuten hitzaldi bat antolatu zuten. Honez gain alderdi politiko guztiei egin zitzaie denaldia Juan Mari Etxeberria preso billabonatarren egoera aztertzeneko. Juan Mari Etxeberriak kartzela zigorraren hiru laurdenak



beteak ditu ia, eta legearen arabera, aske egon beharko luke dagoeneko.

Andoaingo grebariek preso dauden Imanol Olazabal, Xabier Jauregi, Karlos Almorza, eta Joxe Mari Urdanpilleta preso andoaindarrak gogoratu zituzten. Honez gain

Honez gain Fermin Lagalaren egoera berezia eman zuten ezagutzera. Honek ere, zigorraren hiru laurdenak beteak dauzka honez gero, eta libre beharko luke. Azkenik aipatu Euskal preso politiko en artean hiru direla zizurkildarrak: Jon Tapia, Antton Otamendi eta Pedro Galarraga.

Billabona-Amasa "Villabona-Amasako Mapa"

"Villabona-Amasako mapa. E. 1:10.000" izenburupean Udalak informazio ugari ematen duen mapa eman du argitaratu. Etnogintza taldea izan da lanaren egilea. Herriko zerbitzu publikoetako telefonoz gain, toponimia bilketa oparua eta herria ezagutzeko ibilbide batzuk aurkituko ditu bertan herritarrak. Toponimiari dagokionez ibar, erreka, iturri, gobaraleku, uharka, kanal, autobide, errepide, pista, bidezidor, trenbide, sastrabide, zubi, etxe, baserri, borda, ermita, kanposantu, indarretxe, karobi eta dolmenen izenak bildu dira. Guztira lauhun izen baino gehiagok osatzen dute mapa. Honez gain herriko elementu historiko-etnografiko, atsedeneku eta nekazaturismo guneak aipatzen dira. Lau ibilbide ere ematen dira ezagutzera euskaraz eta erdaraz, 3-13 kilometro bitartekoak herriko gune interesgarrienak zeharkatuz. Atal batean kale nagusiko etxeen izenak ere aurki daitezke.

Mapa herritarrei helarazteaz gain eskoletan eman nahi da ezagutzera bereziki, bertan landu dezaten eta neska-mutilek herriko txoko eta baliabideak ezagutzeko herriaren bilakaera eta historiaren berri ere izan dezaten. Bide batez esan, udako auzolandegiko kideen laguntzaz garbitu diren karobien berri eman nahi duela ezagutzera Udalak maparekin batera. Une honetan bertan aurkitu den guztiaren biltze lana ari dira egiten eta hurrengo hilean gaiaren inguruan hitzaldi eta filme batzuk eskainiko direla aurreratu digute.

Andoain

EGUNKARIA Andoainera

Abenduaren 6rako, bere laugarren urtebetetzarako alegia, EGUNKARIAren erredakzioa, produkzio eta komertzial saila, administrazioa eta zuzendaritza Andoainen izango dira, "Laborde Hermanos"en pabiloietako batean, hain zuzen ere. Egokitze lanak egiten hasiak dira dagoeneko. Dena den, eta EGUNKARIAren zuzendaria den Martxelo Otamendiren esanetan urriaren bukaera edo azaroaren hasieran, ziur aski, bertan izango dira. Guztira laurogei langile inguru bertaratuko dira. Pabiloia bi solairu ditu, eta etorkizunean, errotatiba erosiz gero, bertan kokatzeko leku aproposa dela irudituko zaie. Leku aldaketaren arrazoia argia da: EGUNKARIA lau urtetan bilakatu egin da, lanpostu berriak sortu dira, eta benetan txiki geratu zaie egungo egoitza.

Orain arte EGUNKARIAren erredakzioa eta produkzio saila Lasarteen zeuden; komertziala, administrazioa eta zuzendaritza berriz, Donostiako Amaran. Inbertsio berri honek, zalantzarik gabe, zerikusi handia dauka Eusko Jaurlaritzak agindutako dirulaguntzarekin. Dirua, era berean, egunkaria bera aldatzeko, osatzeko eta modernizatzeko erabiliko da. Langilegoaren lan baldintzak hobetzea da zuzendaritzaren beste nahietako bat. Aldaketa honek EGUNKARIAren proiektua eta enpresa bera sendotuko dituelakoan dago Martxelo Otamendi.

Aldaketa lanak, dena den, ez dira nolana hikoak izango, eta langileei nahikoa lan emango dietela pentsatzen dute, ez baita huskeria eguneroko martxa eten gabe, Lasarteko sare informatikoa eta tresneria guztia Andoainera ekartzera. Ongi etorriak!



Dohainik
400 pzt

fotocolor

ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA ORDU ERREBELATUA

*Txartel hau erabiliz 400
pezeta gutxiago ordainduko
duzu (24 x 30) argazkia
handitzea*

Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

Jose Ignacio Unanue
 Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
 20.140 ANDOAIN

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
 Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN

EROSO, S.L.


Gas eta Berogailu Instalakuntzak
Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

ZURE NEURRIKO AURREKONTUA
EGINGO DIZUGU

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:

DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05

IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



•
• **kutxa fundazioa**
•
• **fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

MUSUTRUK DEBALDE

Bidal iguzu izen-emateko txartela edo dei ezazu **30 07 32** zenbakira

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

“Ez da krisiatik aterako gaituen talismana, ekonomiaren garapenerako lan tresna baizik”



Eskualdeko Plan Estrategikoa

“Plan Estrategikoa eskualdearen garapenerako tresna izan behar du. Ez da egin jasaten ari garen hondamen industrial, ekonomiko eta komertzialetik aterako gaituen talismana izateko”,

Tolosaldeko Plan Estrategikoa deitu izan dena definitzeko bere egileek erabili dituzten hitzak dira hauek.

Helburu garbia du egitasmoak: jasaten ari garen krisialdia gainditu eta eskualdeak garai batean izan zuen kemen ekonomiko eta soziala berreskuratzea.

Bere arrazoia are argiagoa da: etorkizunari errealismoz aurre egitea. Plan Estrategikoaren lan esparrua Tolosa inguratzen duten 27 udalerriak dira, euren artean, Aduna, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkil.



**T
O
L
O
S
A
L
D
E
A**

Zikulu saltsa

"Gauzak gaizki daude..."

"Gauzak gaizki daude eta etorki-zuna ez da batere argia" dio txostenak. Horren adierazleetako bat udalerriek bizi izan duten biztanlegoaren behe-rakada dugu; 27 udalerriek ozta-ozta dute gaur egun 45.000 biztanle, 1975ean adina gutxi gorabehera. Mende honen hasieratik hona, biztanlegoaren erdia galdu dute nekazaritza-tik bizi diren udalerriek. Gaur egun, eskualdeko biztanlegoaren %70a oinarri-zko bi gunetan biltzen da: Tolosa-Ibarra, 23.000 biztanlerekin, eta Billa-bona-Zizurkil 8.000rekin.

Hona hemen eskualdea jasaten ari den egoera larriaren zenbait datu adierazgarri: enpleguaren galtzea oso larria da, eskualdeko udalerrri batzuk Gipuzkoako langabezi indizeen lehen muturrean daude. Krisi honetan 1.000 industri enplegutik gora galdu dira, 250 langile baino gehiagoko enpresarik ez dagoen eskualdea izanik. Bestalde, gazteen %25ak eta emakumezkoen 3/4ek ez dute lanik Tolosaldean. Enplegu erregulazioak gauza arrunta dira industrian. Baserriaren gainbehera prozesua, zahartzea, enplegu galtzea, biztanlegoa urritzea oso kezkgarritzat jotzen dira. Azkenik esan zerbitzuak orohar eta tradiziozko merkataritzak bereziki goia jo dutela, edota gainbehera abiatu direla.

Papergintzaren krisia eta hedapen ekonomikoa.

Urteetan paperarena izan da oinarri-zko sektoreetako bat. Oparotasunaldi luzeak ere ezagutu ditu merkatu ekonomia babestuan. Gaur egun, ordea, beste arau batzuk dituen merkatu ireki eta lehiakorra inposatu da, eta enpresek hil ala biziko erronka dute baldintza berrietara egokitu beharrean.

Eskualdeak 85-89 aldian ezagutu omen zuen nolabaiteko ekonomi hedapena, ondorioz, 100 enplegu baino gehiago sortu ziren. Aipatzekoa da garapena Billabona-Zizurkil inguruan bakarrik gertatu zela, eta lantegi txiki asko ireki baziren, handiak itxi zirelako ere izan zela. Hedapenak ez zuen papera eta paper-makinaria harrapatu, horiek enplegua galtzen jarraitu zuten. Hedapena ehungintza, kimika, kau-

txoa eta metal produktuak bezalako sektoreetan gertatu zen. Eta azkenik, guztiz adierazgarria den datua: hedapenaren bultzatzaileak Donostia aldeko enpresariak izan ziren.

Hori ikusita, helburua honako hau izan behar du: Donostia inguruan egotetik, komunikabe lotura izatetik eta enpresa tradizioa edukitzetik eskualdeari datorzkie lehiakortasun abantailak sendotu, eta etorkizunean izan litezkeen garapen aukera berriak behar bezala aprobetxatu behar ditu. Trenbideetako euskal Y-aren proiektua, Donostia-Baiona ardatzarekin lotura eta Nafarroa eta Mediterraneoako ardatza irekitzea, izan daitezke aipaturiko aukeraketako batzuk.

Aduna-Zizurkil industri parke handia

Lehenengo eta behin argi adierazten da eskualdean 27 udalerrietako bakoitzak bere dinamika propioa duela, koordinatu gabea eta batzuetan elkarren aurkakoa. Hori dela eta, benetako batasun koordinatu gisa antolatzea da lehenengo helburua. Koordinazioa eta antolamendua ondoren go gaiotan lortu beharko litzateke: lurzoru industrialak, urbanizagarria ez den lurzorua, baliabide naturalak, nekazaritza eta baso lurzorua, hirigintza eta ingurugiro gestioa, eta oinarri-zko azpiegiturak. Ildo honi jarraituz dago pentsatuta Aduna-Zizurkil aldean industri parke handi bat eraikitzea, behar bezala urbanizatua eta sarbide egoki-ekin. Horretarako Nafarroako autobidearen loturarako sarbidea hobetzea, hala nola Adunaren lotura N-Irekin eta Nafarroako autobidera sarbidea Sorabillatik funtsezkoak dira.



Enpresetarako eskualdeko gune berria Adunan

Asteasun
Agroaldea:
10.000m²ko
soroa

Jarduera eremuak.

Industriari dagokionez ikusi da eskualdean 250 langile baino gutxiagoko lantegiak direla guztiak eta tradizioz sektore garrantzitsuak izan direnak, papergintza eta metalurgia esaterako, krisi luze eta sakonean daudela murgilduta. Ondorioz, galdutako dinamika industrialak berreskuratzea proposatzen da. Horretako behar-beharrezkoak dira papergintza eta paper-makinaria sektoreen berrorientabide estrategikoa eta enpresa arteko elkar-lana bultzatzea, lehiakortasun erronkaren aurrean enpresak baldintza hobetan jartzearen.

Bestalde, baserriak eskualdean pisu handia duela nabaria da, hala ere eten-gabeko gainbehera bizi duela ere are nabariagoa da: soro-lana urritu egin da, enplegua duen biztanlegoa jaitsi egin da, biztanlegoa zahartu eta herriak hustu. Nekazari eta abeltzaintza sektorea lehiakor bihurtzea da, beraz, erronka. Zenbait egitasmo zehatz ere praktikan jarri nahi dira, euren artean Asteasuko Agroaldea, hau da 10.000m²ko soroa, lan intentsiboa martxan jartzeko. Honez gain eskualdeko produktu naturalak saltzeko merkataritza zentru bat irekitzea aproposa dela pentsatzen dute.

Eskualdean merkataritzak zein turismoak galdu dute garai batean izan zuten indarra, eta ekimena berreskuratu nahi dira. Horretarako merkataritzak egungo behar eta eskari herrietara egokitu beharko du. Eskualdean ospitale publikorik ez izatea gabezia handitzat hartzen da halaber. Hezkuntza arloan bi ezaugarri ditu eskualdeak: Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta, hezkuntza arloan ekipamendu txikiagoa dauka, eta bestetik, ikasle euskaldunen portzentaiarik handiena dauka.

Billabona-Zizurkilen kirol instalakuntzak

Herri txikietan daude kirol eta kultur ekipamendu arazoak: Tolosa, Billabona eta Zizurkilek euren herrietan erakitzea proposatu duten eskualde osorako kirol instalakuntzak kirol mailan dauden zenbait gabezia betetzera zuzenduta daude. Bestalde, "Tolosaldea Irrati-Telebista" bezalako proiektuak sorkuntza, hedabide, kultur zabalkunde eta eskualde loturako tresna izan daitezkeela uste da. Azkenik, eskualdean dagoen ikasle euskaldun portzentai handia dela eta, euskararekin zerikusia duten aktibitate sortzaileen garapena bultzatu behar dela diote. Tolosaldea "euskarazko kultur produkzio industrialaren" zentru bilakatuz.

Egitasmo horiek aurrera eramateko 41.795 milioi pezeta inguru beharko ditu Tolosaldeak datorren hamarkadan. Ihar-duera horien finantzaketa sektore publiko zein pribatuaren ahalegin bateratutik etorri behar delakoan daude.

Tolosaldeko Plan Estrategikoa dela eta, hona hemen gure herrietako alkateei egindako galderak eta jasotako iritziak:

- 1- Zein da egun herriak duen arazorik aipagarriena?
- 2- Ekarpen handia izango al da Plana herriarentzat?
- 3- Nola nahiko zenuke herria 50 urte barru?

Jabier Zabala.

Adunako alkatea

- 1- Biztanle galera eta kutsadura.
- 2- Hainbeste herri elkartzea oso garrantzitsua izan da. Planaren ondorioz zerbitzuak eskurago edukitzea eta hobeak eta errentagarriagoak izatea espero dut. Aurrerantzean gure herrien garapena orekatuagoa izango da. Adunako Industrialdeak jendea ekar dezake bizitzera herrira.
- 3- Gutxieneko herri bizitza ziurtatuta nahiko nuke. Horretarako biztanlegoa mantendu behar da etxeak eginez eta zerbitzuak eskainiz.

Eduardo Laborde.

Billabonako alkatea

- 1- Langabezia eta gizarte ezberdintasuna, marginazioa eta zokoratzea eragiten duten beste egoera batzuk.
- 2- Billabonan ez du eragin zuzenik izango, dena den, Asteasuko Agroaldea eta Adunako Industrialdeak eragin zuzena izan dezakete guregan. Bizitanlegoa nabarmen igo daiteke, esaterako.
- 3- Billabona Oriain ibai garbi batera begiratuz haztea nahiko nuke. Haurrak bainatu ahal izateko bezain garbi eta bizi.

Antton Amunarriz.

Larraulgo alkatea

- 1- Baserrien hustuketa, biztanle-goaren beherakada eta herriaren zaharkitzea.
- 2- Mesederik handiena herri handiei egingo diela uste dut. Hala ere, inguruan lanpostuak sortuz gero, Larraul leku erakargarria izan daiteke bizi izateko. Zerbitzuei dagokienez ere, hobe-kuntza batzuk izango ditugu.
- 3- Baserri bizi den euskal familiaz osatutako herria nahiko nuke.

Asintxo Iturbe,

Asteasuko alkatea

- 1- Herriak dituen proiektuak gauzatzeko dirurik eza: etxebizitzak, kirol instalakuntzak, enparantza, Kale Nagusiaren konponketa...
- 2- Agroaldea bultzatzen lagunduko duelakoan gaude.
- 3- Hirigintza, ekologia, bizi kalitate arloetan bilarako beste herri txikien eredu izan nahiko genuke.

Mikel Arrastoa.

Zizurkilgo alkatea


- 1- Zizurkil beheko ordenazioak kezkatzen gaitu une honetan beste gauza batzuen artean. Honekin batera, zenbait denda eta zerbitzuren falta dago. Aduna inguruan kokatu nahi diren lantegien ondorioz Zizurkil "herri-logela" bilakatzeko arriskua ere aurrikusi dugu. Baserriari dago-kionez, nekazar turismoaz gain, birmoldaketa sakona egin beharko da baserriari eusteko.

2- Behintzat, garbi utzi du krisia handia dela. Ez da gure arazo guztien irtenbidea izango baina bidea egiten erakutsiko digu.

3- Arlo guztietan orekaz bilakatu-tako herria nahiko nuke. Honez gain herritar guztientzat nahiko nuke kalitatezko bizitza, eta gure herriak bizi duen gatazkaren konponketa.

BIZTANLEGOA URTEZ URTE

	1960	1970	1981	1991	1994
ADUNA	468	443	327	296	300
ASTEASU	1288	1533	1308	1205	1201
BILLABONA	2712	3917	5228	5360	541
LARRAUL	283	230	176	143	142
ZIZURKIL	1524	1787	2827	2711	2711



Herriz herri

Aduna

Ura kloratzeko sistemarik modernoena

Jende askok, hala ere, ur kloratugabea edaten du kaleko iturrietatik

Orain dela hogeit hamar urte hasi ziren Adunan ura kloratzen. Hasieran erabiltzen zuten sistema ez zen, hala ere, oso egokia. Geroago beste metodorik ere erabili izan dute, baina ez behar bezain aproposak, izan ere, biztanle asko kexatu izan da etxeako kanilako uraren gehiegizko kloro gustoaz. Honez gain, oso sistema zehatzak ez zirenez, urak behar adina kloro zeukan ala ez ere ez zegoen askotan ziurtatzerik. Hori dela eta, Udalak egun merkaturatzen dagoen sistemarik moderno eta ziurrena erosi du ura kloratzeko, sistema elektronikoa, alegia. Etxeatiko ur kloratzea Udalak derrigorrez egin behar izan zuen, legeak hala aginduta. Hala ere, Osakidetza ordezkariek behin baino gehiagotan adierazi diote Jabier Zabala alkateri beren kezka Adunako biztanleek kloratu gabeko kaleko iturrietatik ura edaten jarraitzen dutelako, eta gainera, ez bertako ez kanpokoentzat ez dagoelako ura kloratugabea dela adierazten duen inolako errotulorik.

Sistema berria herriko goialdeko eta enparantzako etxeetara egokituta dago momentuz. Tresna elektronikoa horrek sonda batzuen bitartez ura etengabe aztertzen du urtegiaren, eta momentu oro ziurtatzen du urak behar adina kloro izateko. Sistema zehatza izateaz gain, lana ere erraztu egiten du.

Ez dago errotulorik

Etxeatiko ura derrigorrez egon behar du kloratuta legeak dioenez. Kaleko iturriek dagokienez berriz, kloratugabea izan daiteke, baina hala izanez gero, adierazi egin behar da jendeak jakin dezan. Adunako kaleko iturri guztiak kloratu gabe daude eta inon ez dago errotulorik. "Adunako jendeak betidanik edan du iturri horietatik ura, eta orain gogor samarra egiten zaigu horrelako errotuloak jartzea ura txarra dela adieraziz". Izan ere, ezin daiteke esan iturrietako ura txarra denik, adunatarrek bertatik edaten ohiotuta daude, eta ez da horregatik gaitzik inoiz somatu. "baina egia da ere, kanpoko jendea etor daitekeela, edan eta gaisotu, edota baita herritarren bat ere, gaisotasun edo ahulezia une batean edanez gero" dio Jabierrek. Dena den Osakidetza ordezkariek kezkatu samarrak daude auzi honekin eta gutxienez, adituek iturrietako ura aztertu eta



Iturrietako ura kloratu gabe dago

emaitzak adunarreire eman behar zaizkielela ezagutzera uste dute. "guztiak egon daitezten jakinarene gainean".

Ohituraz

Adunaz kanpo ere izan da uraren kloro, fluor eta beste elementu batzuen inguruko eztabaidarik, izan ere, legeak etxe guztietako ura kloratua izan behar duela dio, baina batzuek ur kloratugabea edateko eskubidea aldarrikatzen dute. Adunako jendearen artean horrelako eztabaidarik izan den, alegia, ur kloratugabea propio edaten duten, ez dakigu. Jendea galdetuta ordea, jakin dugu, asko eta askok ohituraz joaten direla iturrira ura hartzera: "Gu orain dela hogeita sei urte etorri ginenean kanilako ura txarra zela esan ziguten eta iturrikoa edan behar zela, badakigu guzuzak aldatu egin direla, baina guk iturrikoa edaten jarraitzen dugu, kanilakoarekin batera. Hala ere, ezagutzen dut jendea, meriendatzeko orduan adibidez, propio ura hartzera iturrira joaten dena. Gainera, beste batzuek ere hortik hartzen dutela ikusten dugunez guk ere jarraitu egiten dugu. Kanilakoari gusto txarra hartzen diogu batzuetan" dio Adunako biztanle batek.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandiada 2/g - 307. Moduloa - 592923
ANDOAIN



Hasi dira dagoeneko koarteleko etxebizitzak eraberritzeko lanak. Azkenengo hilabete guzti hauetan ez da ezerren mugimendirik ikusi han, eta asko goardia zibilek utzitako etxeak bere hartan geratuko zirela pentsatzen hasiak ziren honez gero. Baina ez. Igeltsariak ari dira jo eta su lanean eta urte t'erdi barru bertan bizitzen hasteko prest egongo dira etxebizitzak.

Urte t'erdi barru egongo dira koarteleko etxeak



Guztira hamabost etxebizitza

Guztira hamabost etxebizitza daude garai batean goardia zibilena izan zen koartelean. Haien artean hamarrek bi logela dituzte eta 65 metro inguru. Gainontzeko hostek lau logela dituzte, eta 95 metro karratu gutxi gorabehera. Horrezaz gain, 15 trastero dauzka etxeak, eta Udalak berretzat gordeko dituen bi lokal.

Baina koartela eraiki zenetik hona urte dexente igaro dira, eta azken urteotan ez da inor bizi izan bertan. Gainera etxebizitzak bete behar zituzten baldintzen araudiak (baldintza termikoak, gas hornidu-

ra...) asko aldatu dira urte guzti hauetan. Horregatik etxebizitzak osotara berrituko dituzte; goitik behera; zolua alxtatuko dute, leiho berriak jarriko dituzte, balkoiak berritu, sukalde eta komun zaharrak osotara al-

datu... Etxebizitzaren egitura eta kanpoaldeak besterik ez du gordeko orain duen itxura. Gainontzera, guztiz berriak geratuko dira etxeak.

"Sano" enpresak hartu du guzti hori egiteko ardura, eta 16 hilabete epean amaitu beharko ditu lanak. Ordurarte ez dira etxebizitzak bertan bizitzen jartzeko moduan egongo.

Izenematea abenduan

Eusko Jaurlaritzak eta Andoaingo Udalak sinatutako hitzarmen bat dela medio gauzatu ahal izango da koartel zaharraren eraberritzea. Kon-

lanak Eusko Jaurlaritzaren ardura dira zuzenean, eta etxebizitzen banaketa aldiz, bi erakundeek onartutako baldintzen arabera zehaztuko da.

Alde batetik babes ofizialeko etxeak lortzeko izaten diren baldintzak (diru sarrerak besteak beste) bete beharko ditu eskatzaileak, eta bestetik. Andoaingo Udalak jarriko dituen beste batzuk (eskatzailea herrian bizitzea esate baterako). Dena den, baldintza horiek zeintzuk izango diren ez da urte amaiera bitartean jakingo. Orduan, irekiko da zerrendatan izena emateko epea, eta etxeak noiz banatuko diren jakinaraziko dute.

Etxebizitzen prezioa pisu bakoitzak dituen metro karratuen arabera izango da. Baina babes ofizialekoak direnez, oso modu onean eskuratu ahal izango dira, handienak ere (98 metro karratukoa) ez baitu 10 milioi pezeta baino gehiago balioko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak bideratuta, interes txikiko kredituak eskuratzeko aukera izango dute eskatzaileak.

Jone Larrañaga



LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

LEITZARAN FINKAK

ETXEBIZITZA ETA
LOKALEN SALEROSKETA
ETA ALKILERRARI
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN



Herriz herri

Itxi egin behar izan dute Otita

Ezin alogerari aurre egin

Uztail bukaeran hartu zuten ixteko erabakia eta abuztuaren azkenengo egunetan hasi ziren trasteak ateratzen. Ixtearen arrazoia alogerari aurre egiteko dirurik eza izan da. Hala ere, lau urtez lanean aritu eta gero, Otitakoek hasierako helburu berak izaten jarraitzen dute: herria bizituko duen kultur mugimendua eragin eta talde kultural ezberdinen arteko elkarlana bultzatu. Otita itxi egin da, baina kulturaren inguruko kezkek bizirik diraute, horregatik egin diote Udalari biltzen jarraitzeko eta euren helburuei custe-ko beste lokal baten eskaria, Eguneke Egoitzaren behe alde, hain zuzen ere. Udal ordezkariak ari dira egun hauetan proposamena aztertzen.

Askagintza, Askapena, Kitto gazte kolektiboa, Muni-lla atsedean taldea, xake taldea, ATA talde antimilitarista eta ekologistak izan dira azkenengoz Otitan bildu direnak. Santa Krutzetako jai batzordea, AEK, Egunkaria eta EGIN-en aldeko batzordea, eta Korrika batzordea ere, ordea, bertan bildu dira behin baino gehiagotan. Hauek gain emakume talde bat, antzerki talde bat eta inguruko bizilagunek ere ezagutu dute Otita. Talde horiei babes ematea ez da izan Otitakoaren ustez baina, herriari egin dioten ekarpenik handiena: ekarpenik baliotsuena herriko talde kulturalen artean koordinazioa beharrezkoa dela, hala nola posiblea dela erakustea izan da. Hau da, lokalik ez zutenean bildu ziren eta arazoari erantzun bateratu bat ematea lortu zuten. Aurrerantzean ere horrela izan behar duelakoan daude.


Orain dela lau urte herriko taldeak biltzeko lokal baten eske joan ziren Udalera. Udalak une hartan Otita bezalako egitasmo bati aurre egiteko lokalik ez zuela adierazi zuen,

talde gutxi batzuentzat baino ez omen zeukan banakako lokalik. Bien bitartean Udalak Basteroko antzokia eta bestelako asmoak burutu nahi izan zituen, baina asmoak gauzatu ez zirenez, taldeak beraien alokatu zuten Ankoras kalean lokala eta Otita izenez bataiatu.

Bestalde, Otitakoek adierazi digutenez, hain alogera garestiari erantzun beharragatik euren martxa urte urte moteldu egin da, alegia, euren indar guztiak alogera ordaintzeko dirua lortzen jarri izan dituzte, txosnak jarri eta 24 ordutako fulbito txapelketak antolatuz esate baterako, bestelako egitasmoei aurre egin ahal izan gabe.

“Teilaturik gabe baina berdin”

Une honetan lokalik ezean, Kultur Etxean biltzen jarraitzeko asmoa daukate, baina hemen betiko arazoak daukate: ordutegi jakin batera moldatu beharra, toki eskasia eta gauzak uzteko leku falta. Hala ere, Otitak dagoeneko berezko dinamika sortua duela uste dute, eta lokalik ez



Jaietako txosna

badaukate ere, aurrera jarraituko dutela. “teilaturik gabe baina orain arte bezala jarraituko dugu” diote. Beste alogera baten aukeraz hitz egin diegunean, hori atzerapausoa izango litzatekeela esan digute, eta lehengo dinamika berberan eroriko litzatekeela. Egia da, hala ere, taldeak herrikuntzaren bat ere behar duela, hau da, lokalen arazoaz gain, jende herriaren premian ere ba omen daude, “jende gazteari ordea, asko kostatzen zaio hurbiltzea eta gizarte honek eta hizi dugun giroak ez dute batere laguntzen”. Hori dela eta bi urte geroztik taldea nolabait ere ahuldu egin dela esan digute.

Andoainek, Otitakoaren ustez, inguruko herriekin aldekatuz, beti izan omen du herri ekintza gehiago egiten delako ospea. Eta, egia da orain dela urte batzuk Andoain beste ezertarako baino, lo egiteko herri bat bilakatzen ari zela kalean esaten hasi zenean, erreakzioz ekintza ugari pizten hasi zirela. Otitakoak baikorrak dira, eta oraingo honetan ere egoerari aurre egingo diotela pentsatzen dute. Hala ere, euren ahalegina nahikoa izango ez delakoan daude, horregatik eskatzen diote Udalari, urteetako errezeloak alde batera utziz, konfidantza eta elkarlanean jarriera ager dezan. Kultura arloan dagoen azpiegitura faltaren arazoari behin betiko erantzun bat elkarlanaz baino ezin dela eman uste dute.

Eguneke Egoitzako lokalen eske

Herriko kultur taldeek, biltzeko duten leku falta dela eta, Eguneke Egoitzako behealdeko bi solairu uzteko eskatu diote Udalari. Taldeak elkar ezagutzeko, elkarrekin lan egiteko, eta herrian zenbait ekintza aurrera eramateko behar-beharrezkoa omen dute guztiak bilduko dituen aretoa.

Askagintzak Andoaingo ia hirurogei talde sozio-kultural kontuan hartuz egindako lan batean dago oinarrituta eskaria. Egitasmo horrek, gainera, harreman zuzena omen dauka, eskatzaileen esanetan, Andoaingo Udaleko Ongizate sailak aurrera eramane nahi duen beste asmo batekin, alegia, marginazio arriskuan dauden gazte andoaindarrei herriko kultura eta aisia arloan eskainiz burutu nahi duen lanarekin. Bestalde, Udalak berak dauka onartuta drogomenpekotasun prebentzio egitasmoetan herriko gazteei eskaini behar zaiela biltzeko gutxieneko azpiegitura.

Talde hauek guztiak helburu bera dute: herria dinamizatu eta kultura eta aisirako aukera eta alternatiba herriki sortzea, gizabanakoak, eta gazteak bereziki, Andoaingo bizitza sozialean gero eta parte hartze handiago izan dezan.



Buruntzako San Rokea: zaharberitu arren auzotarrak ez daude gustora

Ekainean hartu zuen Udalak Buruntzako San Rokea konpontzeko ardura, Diputazioari eskatu eta ezezkoa eman ondoren. Konpontzen hasi dira ordea, eta santua besterik ez dute konpondu. Eta, jakina, San Rokek berezitasunen bat baldin badauka, alboan eramaten duen txakurra da. Julia Etxaizek esan digunez bizilagunek desilusioa handia izan dute gertaera horren ondorioz.

Buruntzako bizilagunak urteetan aritu dira santua konpondu nahiean, izan ere 1963. urtean igo zutenetik asko hondatu da, eta gaur egun Juliak dioenez "nahikoa itsusi zegoen". Honda-tzeaz gain puska ba-tzuk falta izan zaizkio betidanik, txakurraren burua esate baterako. Udalak hiru enpresei eskatu zien santuaren konpontze lana egiteko aurrekontua. Hirurek aurkeztu zuten aurrekontua, baina beti ere santuari falta zitzaizkion puskak osatuko ez zituztela adieraziz. Hala ere, Udalak gaian aditua den Kalicot enpresari eman zion lana 287.500 pezeta ordainduz. "Santuak asko irabazi du" dio Juliak, "txakurrak baina, lehen bezain hondatuta jarraitzen du, eta bururik gabe".

Santuak, adituek diotenez, ba omen du bere balio artistiko-historikoa, eta horixe izan da, hain zuzen ere, txakurraren buru ezaren arrazoia; hau da, konpoketaz arduratu den enpresak Udalari

argi adierazi zion bere garaian, beraien ez dutela, irudiaren puska bat falta, eta bere jatorriari buruzko inongo erreferentziarik ez dagoenean, osatze lanik egiten. Udalak jarri zituen bizilagunak jakinaren gainean, hala ere, hauek San Rokea bururik gabe ikusi zutenean berebiziko etsipena jasan zuten.

Buruntzako San Rokea On Manuel Lekuona ikerlariak aurkitutakoa da. Txikia da baina pisua; 130 kilo inguru ditu. 1963.eko abuztuaren 16an igo zuten Buruntzara, egurrezko zaharra Serorategi baserrira eramanez zutelarik.



1963. San Roke igo zutenean

Goseari buruzko erakusketa

Igandera arte egongo da irekita Mugen Gaietik erakundeak Udalaren laguntzaz Urigain Kultur Etxean antolatutako goseari buruzko erakusketa "Gosea; bere existentziaren arrazoiak" izenburupean. Ekimena giza-laguntzarako elkartearena izan da. Sentsibilizazio kanpaina bat burutzea izan da bere asmoa. Hasiera batean kanpaina eskola-haurren artean soilik zabaltzea zeukaten pentsatuta, baina azkenean herritar guztientzat interesgarria izan zitekeela pentsatu dute eta goizeko saioez gain arratsaldean ere izan da hitzaldirik herritar guztientzat.

Erakusketaz gain joan den astearte, ostegun eta ostiralean hitzaldiak eta bideo emanaldiak izan dira. Batetik, munduan dagoen gosearen arrazoia aztertu dira, iparra eta hegoaren arteko harremanak abiapuntutzat hartuz. Bestetik, gaiaren inguruan dauden mito batzuen azalpena ere eman da, eta mitoa eta errealitatearen arteko bereizketa egiten saiatu dira. Hizlarien artean Nigeriako nekazal emakumeen elkarteko Bissi Ogunleye ekonomista nigeriarra izan da, bere herriko egoeraren berri emanez eta baldintza horietan emakumezkoen funtzioa eta betetzen ari diren lana eman du ezagutzera. Daiapositiba emanaldiak ere izan dira gosearen arazoei buruz.

Ekintza hauekin batera erakundeak gosearen arazoari buruzko txosten bat kaleratu du.



KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27
ANDOAIN

BIKOITZ

- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak

EUSKALDUNA



Edaritegia

Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA



Joan den astean, astelehenean hasi eta osteguna bitartean, baserria hizpide izan zuten hitzaldi eskaintza ezin hobea egon zen Kultur Etxean. Udalak antolatutako hitzaldi hauek helburu garbia izan dute: onartutako Arau Subsidiario berri eta Tolosaldeko Plan Estrategikoaren arabera, eta Asteasun nekazal hustiaperak aurrerantzean izango duen garrantzia ikusita, egungo nekazal egoera eta ondasuna herritarrei ezagutzera ematea, hala nola, etorkizun oparo baterako bidea erakustea. Aspaldi honetan antolatuko hitzaldien artean herrian interes gehientsuena piztu dutenak izan dira.



Begoña del Valle margolaria izan da hitzaldien aurkezpen orriko irudiaren egilea

Nekazaritzari buruzko hitzaldiak

Baserriaren oraina eta geroaz hitz egin zuten adituek

1990. urteaz geroztik zenbait gairen inguruan egindako ikerketa lanean oinarritu dira hitzaldiak, prozesu luze baten ondoren herritarrei bildutako informazioaren eta egindako lanaren berri eman ahal izateko.

"Asteasuko baserriak", "Asteasuko lurra eta basoak" eta "Asteasuko nekazal uztia" izan ziren lehenengo eguneko hiru hitzaldien izenburuak. Lehenengoaz Aranzadi Zientzi Elkarte kide den Josu Tellabide arduratu zen. Baserrien ezaugarri arkitektoniko, historiko eta artistikoak eman zituen ezagutzera, herriak duen ondasuna eta aberastasunari eutsi behar zaionaren ustez. Diapositibaz lagundu zuen hitzaldia. Jose Luis Aizpuru ingeniari agronomoak herriko lur eta basoen ezaugarriak azaldu zituen. Bere ikerketa herriko lurren analisia kimikoen ondorioa izan da. Udalarekin adierazi digutenez, hain zuzen ere, azterketa horien ondorioz, hartu zuen Udalak Suchard enpresa zegoeneko lurren industri izaera aldatu, eta bertan 100.000m²ko lur saila, hau da, Agroaldea, nekazal hustiraketarako gordetzeko erabakia. Ana Usandizaga perito agronomoak, azkenik, baserri baserri aztertu zuen hustiaperak, eta errentagarriagoa izan dadin irizpide batzuk eman zituen.

Astearteko hitzaldian Europa Elkarte Nekazal Politikari buruz hitz egin zuen Emiliano López Atxurra ekonomista eta abokatuak. Hain zuzen ere, Europar aurrerantzean ezarri nahi diren irizpideen berri eman zuen. Erakunde europarrak berehalak onartu behar duen nekazal mapa berria ere eman zuen ezagutzera. Egun berean Martin Auzmendi abokatuak, eta Tolosaldeko Plan Estrategikoaren egileak, Asteasuko Tolosaldean izango duen eraginaz hitz egin zuen.

Europa, EAE eta Asteasuko erakundeak

EHNE eta ENBA sindikatu eta ordezkariak izan ziren asteazkenean hitzaldien protagonistak. Baserri gertutik ezagutzen duten ordezkari horiek baserrien egoera eta etorkizunaz hitz egin zuten. Inaki Berasategi Zeraingo alkateak eta Jakoba Errekondok beste herri batzuetako esperientzien berri eman zuten. "Kultibo biologiko" taldeko kidea den Tomas Larrañagak orain arte eskualdean ia ezaguna den lantze biologikoa ere aipatu zuen. Eta Antxon Pérez Calleja ekonomistak nekazal produktuen komertzializazioaz hitz egin zuen.

Azken egunean Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saile-

ko sailburuordea den Eduardo Arrutia eta Diputazioko Nekazaritza eta Arrantza departamentuko diputatua den Inaki Txueka izan ziren hizlariak eta euskal erakundeek nekazal estrategiei buruz hitz egin zuten. Hitzaldi sailari Asteasuko alkateak, Asintxio Iturbek eta Lorenzo Usandizaga zinegotziak eman zitoten amaiera. Agroaldeari buruz bi alderdiek duten ikuspegia agertu zuten.

Hitzaldi guzti hauen arrazoia Udalak Agroaldea sortuz bere garaian hartu zuen erabakiaren zergatia herriaren aurrean agertzea izan da, hein handian. Agroaldea sortuz baserri euren garapen ekonomikorako baliabideak eman nahi zaizkie, azpiegitura eskaini. Behin azpiegitura ezarrita, baserriak eta interesatuek nahi dutena izango da, Udalaren ustez. Agroaldea, horregatik hitzaldiak bukatuta, lanean jarri nahi du talde bat Udalak. Taldea proiektuan interesa daukaten baserri eta teknikariz egongo da osatuta. Eta euren lana izango da Agroaldeari eman behar zaion izaera zehaztea. Izan ere, Udal sinetsita dago nekazaritzak, sektore-rik ahulenetakoa izanik, babesa behar duela, eta baserriaren balio ekonomiko eta kulturalari eutsi egin behar zaiela.



Aurki hasiko da Loatzo Irratia emititzen

Udalak kontratazioa egitea onartu du proiektuari bultzada berri bat emateko

Billabona-Amasa

Urtarrilean eten zuten euren lana eta orain zerotik hasi behar izan dute ia. Bildu dira taldeki-deak, programazioa zehazten hasiak dira eta emititzen hastea baino ez zaie geratzen. Bien bitartean Udalak istilu asko eragin dituen erabakia hartu du irratiko teknikoaren kontratazioa onartuz. Egun programak grabatzen hasiak dira, berehala F.M. 107-108 frekuntziaren bidez antenaratzeko.

Eduardo Laborde alkateak udaleko alderdiak ados jartzen ez zirela ikusita, nola edo hala, proiektuari bultzada berri bat eman behar zitzaiola pentsatuz, alderdi guztiak bildu zituen Udaletik kanpo. Ketxus Ugarteri urtebeteko kontratazioa egitea proposatu zuen, eta ondoren lehiaketa publiko bat egitea. Oraingo honetan ere ez zen akordiorik egon, alderdiek aurreko iritzi berak izaten jarraitu zuten, alegia, Herri Batasuna oraingo kontratazioaren aurka agertu zen, beste guztiek alkatearen proposamena onetsi zuten.

Hamasei lagun inguru daude gaur egun Loatzo Irratiaren inguruan lanean, Billabonakoak gehienak. Borondatez eta zaletasunez egingo dute lan, hala ere, derrigorrezko baldintza izango da iraunkor samar lan egi-

tea. Programazioa oraindik guztiz zehaztu gabe daukate, hala ere Ketxus Ugarterek aurreratu dizkigu saio batzuen nondik norakoak: bi musika programa izango dira, bata blues-ari buruz, bestean maketa eta talde berriak ezagutzera emango duena; magazinak ere izango dira, eta baita bi kirol saio ere, bata talde nazional-taz arduratuko da, herrikoetaz bestea.

Jendearen araberako saioak

Saioak beti ere, irratira inguratzen den jendearen gustoaren araberrakoak izango dira, zentzu horretan ez omen da inongo mugarik jarri, "hala ere, irratia hau ez dago pentsatuta, edozein etorri eta erakunde, herritar edo politikarien aurka gaizki esaka jarduteko. Loatzo irratia irratia kultural bat da" argitu digu Ketxusek.

Hizkuntzari dagokionez beraz, taldekideen araberrakoak izango dira saioak ere, dena den, saio gehientsuenak euskaraz izango direla jakin dugu.

Arratsaldeko zortzietan hasi eta gaueko hamaikak bitartean entzun ahal izango da irratia Billabonan, Asteasun, Andoainen, eta baita Tolosan ere. Entzulegoari dagokionez, ahalik

eta esparru zabalena izaten ahaleginduko dira. Aurrerago publizitatea egitea ere pentsatuta daukate, baina horretarako irratia herrian erroto egin behar du lehenago.

Datarik zehaztu gabe baldin badago ere, zurrada aurki Loatzo Irratia entzungai izango dela. Une honetan taldeko partaideak saioak aldeztu aurretik ari dira grabatzen, izan ere, zuzenerako ez zaie oraindik prest daudenik iruditzen. Grabatuta edo zuzenean hiru orduz billabonatar eta ingurukoei une atseginak pasaraztea eta informatzea du helburutzat Loatzo Irratiak. Ez da erronka makala!



Loatzo irratiko kideak

HOL - ATZ

VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA


PITZADURA, PIPÍ eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

ZUBI

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



Herriz herri

Ezadostasuna kontratazioen oinarriekin

Euskarari buruzko erabakia kontzienteki hartu du Ongizate batzordeak

Udal Gobernu batzordeak denboraldi baterako gizarte laguntzaile baten eta administrari laguntzaile baten kontratazioekin aurrera jarraitzea erabaki du Euskara-Hezkuntza batzordearen izenean Xabier Zabalak eta HB alderdiak bere aurka inpugnazioak aurkeztu dituen arren. Udal langileen ordezkariak ere bere ezadostasuna jakinarazi dio Gobernu batzordeari gutun baten bitartez. Ezadostasuna hiru punturen inguruan sortu da: euskararen neurketa, gizarte laguntzaile hutagaiei eskatutako froga eta epaimahaiaren osaketa. Hilaren 30ean bilduko den epaimahaian ez dira ez Xabier Zabala ez HBko ordezkariak egongo.



Udal bulegoak

Elkarrizketa Billabonara egokitu-tako ongizate proiektu zehatz baten txostenaren defentsa izango da. Froga hau gairitu ondoren epaimahaiak hautatuen esperientzia, euskara maila eta beste xehetasun batzuk hartuko ditu kontuan. Dena den, euskara frogak alde aurretik ez du hautagai bat ere kanpoan utziko; euskara jakitea meritagarri baino ez da izango.

Euskarari dagokionez, Euskara batzordeburuak eta HBk aurkeztutako inpugnazioetan euskara merezimenduztat bakarrik hartuta, Udalak onarturiko Euskararen Udal-Ordenantzak ez direla batera kontuan eduki esaten du: batetik, lanpostuetarako oinarriak erdara hutsean agertu direlako; bestetik, funtzionari nahiz kontratuak, finkoak nahiz denboraldikoak, beren eguneroko lana, norik bere mailan, euskaraz egiteko gai izan behar dutelako. Eta Billabonako egoera soziolinguistikoa ere

ez delako kontuan hartu, ezta zerbitzu horretara hurbiltzen den adineko jende euskalduna ere".

Bestalde, HB eta langileen ordezkaria ere ez dira epaimahaiaren osaketarekin konforme agertu, beren ustez epaimahaian gai horretaz dakiten pertsona gehiago beharko lirateke. Azkenik, langileak gizarte laguntzailea kontratatzeke egingo den froga bakararen aurka agertu dira, izan ere, hautagaiak txostena etxean egin ahal izango du.

Ez dago araudirik

Aurkako iritzi hauek guztiak direla eta, Eduardo Laborde alkateak Udaleko idazkariari eta EUEDEli eskatu die txosten juridiko bana oinarrien legaltasuna bermatzen den ziurtatzeko. Bi txostenen arabera denboraldiko langileen kontratazioaren kasuan ez dago araudirik, eta erabakiak kontratazio egingo duen erakunde gorenaren es-

kuetan uzten da. Alkateak oinarriak le-galak izanik, atzera egiteko inongo arrazoirik ez dagoela uste du. Frogari dagokionez garrantzitsuena elkarrizketa dela adierazi digu: "hor neurtuko dugu pertsonaren balioa, eta ez zaigu iruditzen hori froga subjektiboa denik".

Lege kontuak alde batera utziz, euskara meritagarria eta ez derrigorrezkoa izatea zergatik erabaki den galdetu diogunean, Ongizate batzordetik adierazi omen diote erabakia, Euskararen Ordenantza-errekiko duen kontraesana hein batean onartu arren, kontzienteki hartuta dagoela. Hau da, teknikariaren profesionaltasunari eman nahi zaiola lehenetsua, euskara oztopo izan ez dadin. Honez gain, gaineratu du, susmagarria iruditzen zaiola gai honen inguruan halako zalapartak sortu izana, izan ere, Udalean era honetako beste kontratazio batzuk egin omen dira, eta inor ez omen da asaldatu.



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Aurki hasiko dira elizako erretaula konpontzen

XVI. mendeaz geroztik ikutu gabe zegoen

San Esteban elizako erretaula konpontzeko lanei hilaren hasieran ekingo zaie eta urte bukaeran amaituko dituzte. XVI. mendeko erretaula pipiak janda dago zeharo, oso hondatuta. Udalak aspaldidanik zeukan konpontzeko asmoa, baina Diputazioetik dirua lortu ez duten bitartean ezinezkoa izan zaie. Guztira 14-15 milioi ordaindu beharko dute.

Donostiako Albaialde enpresa da konponketaz arduratuko dena. Erretaula guztiz desmontatuko dute. Lanik erretzenak elizan bertan egingo dituzte, eta zailenak Donostian. Lehenengo pipiaren aurkako gasa emango diote egurrari, ondoren osatuko dituzte falta diren puskak eta landuko dute egurra eraberritu arte. Lana handia izango da, izan ere, erretaula oso hondatuta dago, egin zenetik, XVI. mendeaz geroztik, ez dute inoiz konpondu.

Orain dela bost urte eliza txukundu zutenean konturatu ziren erretaularen egoera txarraz. Orduan hasi zen Udala Diputazioari diru eske konponketari ekiteko, baina gaur arte ez dute dirurik lortu. 15 milioien %70a Diputazioak ordainduko du, Goitzategiak hartuko du bere gain beste portzentai handi bat eta falta denaz Udala arduratuko da. Elizako konpontze lanak egin zituztenean Udalak herritarrengana jo zuen diru eske, Diputazioak, txukuntze lan hura arte lana ez zenez, ez baitzuen dirurik eman. Oraingo honetan berriaz Udalak ez du herritarrengana jo nahi izan, hainbeste denbora ez dela ere, joan zen eta.

Atzean margo bat dago

Erretaula ez dago hormari zeharo itsatsita, badauka ziriztu bat, eta ziriztu horretatik hain zuzen ere, ikusi dute

erretaularen atzean dagoen margoa. Adituek diotenez bere balio historikoa garrantzitsua izan daiteke, erretaularen aurretikoa izango da, ziur aski. Bere balio artistikoa handia izanez gero, erretaula lekuz aldatuko dutela aurrakusi dute margoa agerian gera dadin.

Antton Amunarriz alkateak adierazi digunez konpontze lanak egin bitartean mezak orain arte bezala egingo dira.

Diputazioak esan duenez Larraulgo erretaulak badu balio historiko-artistikorik, ez baitira geratzen garai hartako erretaula asko. Erretaula egiteko lizentzia 1.649an eman zen, egileak, Juanes Ziazelda Elizegik, sei urtetan egiteko konpromezua hartu bazuen ere, 1.662an bukatu zituen lanak. Pedro Luzuriaga eta Pedro Ezkarreta izan ziren bertako santu eta irudien egileak. 40.933 errealetakoa izan zen eraikitze lanaren prezioa.




XVI. mendekoa da erretaula

Larrauli

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajaren
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

ERNIOBIDE
JUAN CARLOS ARICETA
ZURGINDEGIA
-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

URBIETA ANTIK
GARRAIOAK
GARRAIOAK ORO HAR
-Ganadu, txirbil, zerrauts, lasto eta baserrirako behar duzuna
-Bolketea eta grua duten kamioiak ditugu
KALITATEZKO SU EGURRA
-Neurrira moztuta eta urte osoan
-Haritza eta pagoa
-Etxerainoko zerbitzua
Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - ☎ 69 35 76 - LARRAUL



Herriz herri

Haurrak dira liburutegira gehien jotzen dutenak

Hogei aldizkari ezberdin izango dira irakurgai urritik aurrera

Zizurkilgo liburutegia duela bost urte hasi zen bere zerbitzuak eskaintzen. Liburuzainaren esanetan hasieran behin-behineko proiektu bat izan behar zuen. Hastapenetan "karidadeko lokala" izenez ezagutzen dugun lokala erabiltzen zuten. Han atera zituzten lehen irakurtxartelak, laurehun bat inguru. Han bi urtez aritu ondoren, 1991. urtean, Kultur Etxearekin batera, liburutegi berria jaio zen.

Irakurle kopuruari buruz galdetu dugu lehenik eta behin. Haur eta gazteen bazkidetza azpimarratu digu Arantxa Zabala Kultur Etxeko arduradunak. Badira ia seiheun irakurle txartelak egin dituztenak. Horietatik %70a haurrek osatzen dute, beste %30a herriz, helduek.

Aldiz liburuen kopuruari dagokionez herriz, 6.000 ale dituztela orotara esan digu Arantxak. Horietatik 4.000 errejistro ordenagailuetan sarturik baldin badauzkate ere, beste 2.000 oraindik ere sartzeko daude.

Jarraian liburutegiaren toki guneari buruz jardun dugu. Bi sailetan banaturik dago lokala solairu bakarrean. Bata, haurren sailak osatzen du hamabost haurrentzako tokiarekin.

Bestea aldiz, helduen saila dugu, berrogeita bostentzako lekua dago bertan.

Bestalde, liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak ere aipatu dizkigu eta hona ekarri zuek jakinaren gainean jartzeko: besteak beste, fotokopiagailu bat, liburutegiko liburuen abantzu zerbitzua eta berehala sartzekotan diren hogeitaz aldizkari desberdinen zerbitzua. Azken hauek bertatik ezingo dira atera. Urrik aurrera izango ditugu esku artean.


Berrikuntzak

Abantzu zerbitzuari buruz azalpen batzuk eskatu ondoren honakoa esan digu: liburuak hamabost egunetarako soilik har daitezke, eta aldiko bi baino gehiago ezin dira hartu. Abantzu zerbitzurako ordea, beharrezko da irakurle txartela egitea. Liburutegian bertan egin daiteke.

Eta amaitzeko, Arantxak proiektu berri baten azalpenak luzatu dizkigu. Irakurketa zuzpertzat duen proiektu honetan Gi-

puzkoako liburutegi orok hartu dute parte. Euren artean eta kultur taldeekin bat, Eusko Jaurlaritzak eskainirik diru laguntzak, liburutegietan iharduera batzuk eginez ustiatu nahi lituzkete.

Bestalde, Zizurkilgo liburutegian azaroaren hirugarren astean euskal ilustratzaileei buruzko erakusketa bat izango da besteak beste. Abenduan, urtarrilean eta otsailean eta martxoan Aintzane Intxaurren tarteko delarik "ipuin ordua" izenburupean adin guztientzako ipuin kontaketa izango dira. Ekintza hauen bitartez Zizurkilgo biztanlegoarengan irakurtzeko ohitura zuzpertzat lortu nahi da. Beraz, zizurkildarrak badakizu nora agertu aisialdirik nahi baduzu.



6.000 liburu inguru

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJICA
MARI JOSE GOENAGA URIARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA
Antxin kalea, 3 behean - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

Maidor Barandiaran

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazterientzat!!


ZIZURKIL

“Erniyo-mendi! Erniyo-mendi!”

**Sinesmenak, ohiturak, jai giroak... eraginda
igotzen da urtero hutsik egin gabe jendea**

Makina bat jende aurki daiteke Ernio bidean abuztuko azken igandean hasi eta iraileko igande guztietan. Ernioko erromeriara adin guztietako gipuzkoarrak joaten dira, Donostialdekoak batez ere, Zelatunen esan digutenez; hala ere asko dira Ernio inguratzen duten herrietatik abiatzen direnak, Beterrikoez gain, azpeitiarrak, tolosarrak eta abar. Azkenengo bi igandetean bildu ohi da jende gehien; eguraldi on-ona

egin duenetan 8.000 lagun inguru ere bildu izan da Zelatunen. Ohitura, sinesmena, jai gogoia, kirola, egun pasa, hauek eta beste arrazoi batzuk ere izango dira jendea Ernioko gailurrera igotzera bultzatzen dutenak. Dena den, arrazoi bat edo bestea dela medio, Ernioko igoera abuztuero eraberritzen da eta inguruko zaharrenek esan digutenez “betidanikoa” omen den ohitura hau ez da inoiz eten.



Erreportaia

Ernioko erromeriari buruz hitz egiteko Zelatungo bordako Antonio Aldalur eta Pepita Barriola iruditu zaizkigu pertsona aproposak, berriak eman digute hango berri. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi Saturnino Iztueta, 74 urteko elduaiendarra, 1947 urteaz geroztik Beltza bere txakurraren laguntzaz, Zelatungo borda batean bizi dena, bere kargu 2.000 ardi dituelarik.

“Dantzarako gogo ga du jendeak”

Saturnino Ernioko gailurrean da goen gurutze handiarekin batera bertaratu zen 1.947. urtean eta geroztik hantxe dago. Garai haietan gurutzea egiten aritu zirenei arrantxua egiten jardun zen, eta ondoren artzain geratu zen. Erromeria asko ikusita dago Saturnino, eta hortaz, bere gazte garaitik aldaketa asko antzeman ditu: aldaketarik nabarmenena jendearen dantzarako gogoan somatu du; lehen jo eta fuego aritzen omen ziren guztiak dantzan; egun dantzarako gogoa edo sasoi ga galdu egin omen da. Trikitilariak ere lehen koadrilekin batera joaten omen ziren, koadrila bakoitzeko bikote bat. “30 bikote ere ikusi izan ditut nik” dio Saturninok. Gaur egun berriz, bordetakoek esanda joaten omen dira trikitilariak. Honez gain, lehen lehenengo igandean, San Juan txiki egunean, izaten omen

zen jende gehien, gaur egun berriz, azkenengo bi igandetan izan da jende andana. Dena den, aldaketak izan badira ere, Zelatunen igande horietan jai giroa ziurtatuta dago. Saturnino bordako bazter batetik behatuz egoten omen da egun osoz, jendea erreparatuz, ia 40 urtetan gertatu diren aldaketak jendearen janzkeran, jarduteko eran eta formetan aztertuz. Izan ere, Saturnino urtean bi hilabetez baino ez da “jaiesten”, eta igande hauetan izaten du aukera “hemen beheko martxaren” berri izateko.

Zinta, gailurrera iritsi delako seinale



Erreumaren kontra burni uztaiak

1965. Gurutze bidean otoitz eginez

Eguna zabaldu orduko abiatzen dira Zelatunetik gailurrera goiztiarrenek, eta ondoren goiz osoan zehar gelditu gabe ibiltzen da jendea gora eta behera, bata bestearen atzetik, mantso, iladan. Goizago irtetzen direnek hamarretakoa egin ohi dute bordaren batean. Jarraian aldapan gora abiatzen dira, Gurutzeen pareira iritsitakoan, sinestuz gero, edota ohiturari jarraituz, burni-uztaiak hartu eta besoetatik, hanketatik, lepotik eta gorputz osoan igaroarazten dituzte, erreuma eta hezurretako beste asko ere sendatzen dituzte eta, usadioak dioenez, burniek. Gurutze bidea otoitz eginez egin ohi dutenak ere izaten dira, hala ere, erromesaldiak ostiral santuan izaten du irailean baino harrera hobea. Gailurrera iritsita derrigorrezkoa da zinta gorri, berde edo zuriak erostea; gailurrera iritsi delako seinale. Zinta eskumuturrean, gerrian edota arropatik zintzilik jarrita egiten da jaitsiera Zelatunera. Ongi bazkaldu eta kanturako, bertsotarako edota tertuliarako garaia dator ondoren. Arratsalde osoan zehar, eguraldiak lagunduz gero behintzat, erromeria izango da. Arratsaldeko azkenengo orduetan, eguzkia ezkututzen hasten denean baino ez du jendeak etxerako bidea hartuko.

Jai erlijiosoa

Zaila da jai erlijiosoa den ala ez den zehaztea, izan ere, Pepitak dioten bezala, “ez dauka zerikusirik o-



Zinta zuri gorri berdeak makilan jarriak

toitz egiten igotzeak ala ez; gauza igotzea da, eta eguzki edo euripean igandero-igandero igotzen denak badu nolabaiteko fedea, sinesmena edo zerbait". Dena den, erromeria San Juan Txiki egunean hasten da, alegia, San Juan Bautista apostuluari burua moztu zioten egunean. Beraz, ziur aski, Euskal Herriko aintzinako ohitura zahar bati Elizak bere esanahi propioa noizbait eman diola pentsa daiteke. Honez gain, ez lehen bezain jendetsu behar bada, baina oraindik ere gurutze bidea egiten da. Hain zuzen ere Errezilgo Keixeta, Lete edo Odri baserriko alabak, etxe-koandreak edota amonak zuzendu izan dute otoitza gurutze bidean gora. Bestalde, goiko ermita txikian jarri ohi den kandela piztu morloak badu esanahi erlijiosoren bat. Baina, ziur aski, Ernioko gailurrean dauden gurutzeak ematen diote, hein handian, zentzu erlijiosoa igoerari. Herri askotako sinesdunak izan dira bere fedearen agiri gisa, gurutzea igo dutenak, herrietako luistar kongregazioak eginak kasu askotan.

Antigoaleko ohiturari eutsiz

Ohitura edo usadio zaharren bati eutsi nahian ere igotzen da jende asko eta asko Erniora, urte batean hutsik egin gabe ere urtero igotzen direnak ere badira. Beraiek kontatuta dakigu orain dela urte batzuk, Franco hil eta gero zintak zirela eta

ez zirela, izan ziren eztabaidak. Hasierean kolore guztietako zintak saltzen omen ziren gailurrean, eta erosi ere hala erosiko ziren. Franco hil ondoren, ordeak, jendeak, zinta zuri, gorri eta berdeak erosten omen zituen bakarrik. Goardazibila, kezkatu, Zelatunera ere igotzen zen, zinten inguruko gorabehera haiek ikertzera. Orain berriz, jendea hiru kolore horietara ohitu egin delako, edota garai bateko aldarrikapenari eutsi nahi diolako Ernio zinta zuri, gorri eta berdeak baino ez dira ikusten. Lete baserriko etxeandrea izan ohi da, zestoia besoan hartuta, zinta koloredunak saldu ohi dituenak. Zinten pasadizuaz gain Ernio aldea bada beste ohitura zahar baten lekuko ere; Antoniok dioenez Iturriotzeko bentatik igotzen omen da Erniora jende ge-

hien, izan ere bertatik igotzeak badu bestelako esanahi berezirik ere; alegia, asko dira San Juan ermitako urak edanda igotzen direnak, hain zuzen ere sarna sendatzeko edan ohi diren urak.

Ohitura zahar eta berrien topagune

Ohitura zaharrei eutsi nahi eta sinesdunak izateaz gain, egun pasa egin edota izerdi pixka bat botatzeko igotzen direnak ere asko izaten dira. Kirolzaleen artean, irratia beldurrian hartuta igotzen direnak ere urtero izaten dira, orduantxe izaten baitira Donostiako Kontxan erregatzen eta.

Aurten urtero bezala izan dira primerako eguraldiak erromeria egunean, baita kaskarragoak ere. Urtero bezala, hutsik egin gabe igo direnak izango ziren, eta baita lehenengo aldiz Zelatun eta Ernioko gurutzak bisitatu dituztenak ere. Antonio eta Pepitaren urteko lan egun gogorrenak igaro dira. Iraila izan, beste edozein hilabete izan, Saturnino da Ernioko magalean, ardiak zaintzen, Beltza lagun bakartzat duelarik, bertaritzen denak aurkituko duena, Saturnino Iztueta Ernioko gurutzak bezain beste denbora inguru haietan daramana, erromeritan makina bat dantza egin izan duena eta egun, San Juan Txiki egunean hasi eta iraileko

igande guztietan, jakinminez, bere borda ondoan jarrita, jendeak bera erreparatu ezin duela, ohitura eta jardun berriei begira egoten dena. Ernioko erromeria, urteak joan urteak etorri, era honetan bilakatzen da ohitura zahar eta berrien topagune eta lekuko.



Saturnino Iztueta eta Antonio Aldalur

Asteasu

Eulogio Iraola, 15 urtez geroztik uztargile

Idiak urritu egin dira, eta ofizioak gainbehera egin du

Eulogio Iraola Iturzaeta, Juanbeltzenea etxeko asteasuarra Gipuzkoako uztargile bakarrenetakoa da. Azpeitiarra da gaur egun lan egiten duen beste gipuzkoar bakarra, bizkaitarra bestea. 72 urte ditu eta oraindik ere uztarriak egiten jarraitzen du lehen adina lanik ez izan arren, izan ere, idiak traktoreek ordezkatu dituzte baserrietan. Ofizioa aitarengandik ikasi zuen, aitona ere uztargilea omen zuen, baita honen anaia ere. Eulogio jubilatuta egon arren, lanean jarraitzen du eta ofizioa, momentuz behintzat, ez da galduko Jose Ignazio bere semeak eman baitio jarraipena.

43 urtekin *uztatu* zen eta orduan utzi zion pilotan jokatzeari. Inguruko frontoi gehientsuenetan aritu da pilotan, Atano ospetsuarekin ere jokatu du, baita munduko txapelketa ere frantsesen eta argentinarren aurka. Orain gutxi arte Sorabillako Inquitxen egin du lan hamasei urtez.

AIURRI: Zer dela eta hasi zinen lantegian lanean?

E. Iraola: Disgusto baten ondorioz hasi nintzen lantegian. Garai hartan Azpeitiako Ilarra baserrikoari egin nion uztarria apostu baterako. Bere kontra aritu zenari ere nik egin nion uztarria. Idi proba egin zuten eta Ilarrak galdu. Antza, idietako batek ez zuen ongi tira egiten, burua askotxo altxatzen omen zuen. Deitu zidan eta bestearrekin elkartu eta amarru egin niola esan zidan. Zabaldu zen hura



Egunean uztarri bat egiten du

bazter guztietan, eta nik hartu nuen disgustoa! Horregatixe hasi nintzen lantegian.

A: Gezurra zen baina?

E. Nola izango zen ba egia! Fin egin nuen nik lan. Ilarra bera izan zen konfunditu zena. Idiari zegokion kopetakoa jarri beharrean, idi zaharrago baten kopetako txikia jarri zion, eta jakina, idiari haragian sartu eta min egiten zion. Horregatik, altxatzen zuen harek burua. Argitu genuen berehala okerra, baina ni zeharo jota gelditu nintzen...

A: Gustoko ofizioa al duzu?

E. Beharko gustatu! Hamabost urtekin hasi nintzen lanean. Hasieran ez nuen nahi izan, eta aitak baserrira bidali ninduen morroi. Aurreneko urtean hutsaren truke egin nuen lan. Ondorengoan hilean bost duro irabazten nituen. Orduantxe konturatu nintzen hura ez zela bizimodua eta uztarriak egiten hasi nintzen. bizibide hobe izango zelakoan.

Zailena idiaren joerei antzematea da

A: Nola egiten dira uztarriak?

E. Denak diferente. Bat bera ez da bestearren iguala. Idi bakarrarentzat egin daitezke, bi, hiru, lau edota gehiagorentzat. Hasteko egurra ez pitzatzeko bihotza kendu eta lau puskatant zatitu beharra dago. Egun batzuk uretan edukitzea komeni da biguntzeko. Egurra iharra egonez gero, zaila da lan egitea. Ondoren lepozuloak eta adarzulook egin behar zaizkio. Baina hala ere, lanik zailena hasierakoa da. Alegia, idiari edo idi pareari neurriak hartu eta ze joera dauzkan antzeman behar zaio; makala ala bizia den, bultza egiten duen, zabalatzeko joera duen... Eta hori guztia hantxe bertan egin behar da, idiak ikusi ahala. Buruan argazki antzeko bat egin beharra dago, momentuan

egin behar da uztarrria buruan. Idia-
ren ezaugarriak gogoan dituzula it-
zuli behar duzu etxera, eta egin.
Bukatu eta gero baserrira itzuli, pro-
batu eta egokitu egin behar izaten
dira.

**A: Uztarriak apaindu ere egi-
ten dituzula ikusten dut.**

E: Bai, lore batzuk egiten dizkiot.
Beti antzekoak. Baserriaren izena ere
jartzen diot. Bukatzeko barniza ema-
ten diot. Gero askok flekoak jartzea
nahi izaten dute, Bartzelonako kolo-
reak direla, Errealekoak, ikurriña...
Baina inportanteena eta zailena uz-
tarria ongi egitea da. Hala ere, itxura
ere zaindu beharra dago, askok
apaintzeko nahi izaten dituzte uz-
tarriak eta, jantziak zintzilik jartzeko
adibidez.

Apostuetarako nahi izaten dituzte uztarriak batez ere

**A: Ondo saltzen al dira uzta-
rriak?**

E: Gaur egun uztarri gutxi saltzen
da baserriko lanetarako, idi gutxi bai-
tago. Hala ere, Gipuzkoako bazter
gehientsuenak ezagutzen ditut nik,
batera eta bestera joanda. Hasieran
bizikletan joaten nintzen, motorrean
gero, eta kotxean azkenik. Bizkaiko
beste muturreraino ere joanda nago.
Orain apostuetarako nahi izaten di-
tuzte uztarri gehienak. Apostuetan
ezagutu naute ni, batez ere. Espai-
niako txapeldunari ere nik egin diot
uztarria.

**A: Inportantea al da apostue-
tan uztarria ondo eginda egotea?**

E: Nola ez! Hala ere idiak ongi
prestatzea da inportanteena.

**A: Etorri al zaizu inor ofizioa
ikastera?**

E: Aitak ikasle asko izan zituen,
bainak nik semea kenduta, inor ez.
Dena den, hau ez dago erakusterik.
Egin ahala ikasten da. Gainera, idiak

denak ezberdinak dira, eta behin
nola egin behar den erakutsita ere,
hurrengo idiak ezberdinak izango
dira, beraz...

**A: Ze egur mota erabiltzen
duzu?**

E: Pagoa normalean, tarteka bai-
ta alta, urria eta zumarra ere, baina
gutxi. Batzuetan Normandiako pagoa
ere erabili izan dut, hemengoa baina
bigunagoa da, ez dauka hainbeste
adar eta pitzatu. Hala ere, normalean
hemen ingurutik hartzen dut egurra.

**A: Oraindik ere egiten dituzu
uztarriak. Asko?**

E: Egunean bat egiten dut. Erresi-
dentzian besoa puskatuta egon nin-

Artesau lanak nekez saltzen dira, garestiak dira

**A: Erakusketetan ere ibiltzen
zara?**

E: Bai, gustatzen zait joatea, bai-
na horrelakoetan irabazi baino, gal-
du egiten da. Artesau lanak garestiak
izan ohi dira, eta gaur egun jendeak
merke erosi nahi izaten du. Hala ere,
nere herri izan eta, etxera etortzen
zaizkidanak ere izaten dira.

Elkarrizketa bukatuta, Eulogiok lan



Uztarriak apaimgarri

tzenean ere uztarriak egiten aritu nin-
tzen. Medikiak besoa mugitzea kom-
meni zitzaidala esan zidan, eta azke-
nean inguruan nituen mediku guz-
tientzat uztarriak egiten bukatu nuen.
Hala ere, orain lana ez da lehen be-
zain gogorra; lehen dena aizkoraz
egiten genuen, orain motosierra ere
erabiltzen da, eta lana pixka bat
erreztu da. Hala ere, lanik zailenak,
idia neurtu eta hari antzematea izat-
en jarraitzen du, eta horretan ez da
aldaketarik eman. Asko ibili beharra
dago ikasteko, eta erakustea berriz,
oso zaila da.

egiten dueneko txokora joan gara. Han-
txe dauzka zintzilik bere uztarriak prezia-
tuenak. Lau lepezulo dauzkan uztarri bat
ere erakutsi digu, Gemikako moja bat-
zuek egiteko agindu eta bertan utzitakoa.
Antza, zazpi lepezulotako uztarria nahi
zuten mojek, zazpi probintzien seinale.
Eulogiok zazpikoa gehiegi zela eta,
laukoa egin zien. Hantxe utzi zuten mo-
jek uztarria. Ez ziren inoiz jasotzera joan.
Etxean dauzkanak ordea, egin dituen
guztien agiri txiki bat baino ez dira, izan
ere, Eulogi Izueta, Asteasuko uztargilea,
Gipuzkoa eta Bizkaiko baserriak ezku-
tuenetan ere ezagutzen dute.

Baserrian

LARRAUL

Kaletarrek sutarako gero eta egur gehiago behar

Pinudiak ugaritu ahala, pagadi eta hariztiak urritzen

Asko dira basoak dauzkaten baserritarrak. Urteetan hazten ikusi eta gero, mozketa garaia iritsi ohi da. Basa mutilak izan ohi dira lan horretaz arduratzen direnak. Egurrik onena altzaritarako erabiltzen da normalean.

Zuhaitzari enborra kendu eta soildu ondoren ordea, adaskak ere probetxuzkoak izan ohi dira, su egurretarako batez ere. Hala ere, gehienetan, etxerako egurra soberan izan ohi du baserritarrak basoa moztutakoan. Kaletarri saltzea egokitzen zaio orduan. Enbor zatiak eta adaskak neurrira moztu eta etxeraino garraiatzen zaizkio. Kalean asko dira, etxe berri eta txaletak batez ere, tximeneta, sukalde eta berogailuetarako su egurra behar izaten dutenak; modernotasun eta erosotasunak aginduta, gero eta gehiago. Basoak berriz, pagadi eta hariztiak batez ere, gero eta urriagoak.

Larraulgo Urbieta anaiak zeregin honetan ari dira bi urtez geroztik, hauda, egurra moztu, sailkatu, gorde eta garraiatu egiten dute. Hasieran garraioaz baino ez

ziren arduratzen, orain aldiz, mozketa lanak ere egiten dituzte. Egurra inguruko basoetatik ateratzen saiatzen dira, nahiz eta aitortu, pago eta haritz basoak gero eta urriagoak direla. Asteasu eta Aia inguruan gelditzen omen dira aldirietako onenak. Hala ere, pagadi eta hariztien mozketa mu-



Eskaria gero eta handiagoa

gatuta dago, eta baserritarrak ezin du nahi duenean basoa moztu. Diputazioaren baimena behar du horretarako.

“Haritz eta pago mozketa mugatuta dago”

BENTA

Sagardotegia



Espezialitateak, bakailua tortillan, saltsan eta frijitua, txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO ERREPIDEA

☎ 69 30 94

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



BRONTE

ZENTRU OPTIKOA BILLABONAN

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
TOLOSA-DONOSTIA

HERRI OSTATUA



Taberna
Jatetxea

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL



Egurra moztu, sailkatu eta garraiatu egiten dute

Jatetxe, elkarte eta txaletak


Eskaria gero eta handiagoa da; jatetxeak, elkarteak, txaletak eta *ekonomikak* deiturikoak edota beheko su asko omen dago, eta hauek hornitu behar izaten dira. Gainera, egun etxe berri askok erabiltzen dute su egurra sukalde eta berogailuetarako. Jose Marien esanetan, sukalde frantses eta aleman modernoek batez ere. Baina kaletarrak ez du basorik, ez tresna egokirik, eta normalean, ezta egurra moztera joateko joerarik ere. beraz, hornitzailea behar-beharrezkoa izaten du. Jose Mari dionez gainera, eskaria gero eta handiagoa da. Bizkaia eta Iparraldeko jendea ere hornitzen baitu berak. azken hauek mugaz bestaldeko prezio txikiagoak animatuta.

“Hemengoak agortu ondoren Nafarroara”

“Hemengo basoak agortuz gero, Nafarroara joko genuke” dio Jose Mari Urbietak hemen aurki pinu basoak baino geldituko ez direla susmatuz. Izan ere, egun baserriar gutxi aldutzen du haritza edo pagoa basoa moztutakoan. Pinuaren etekinak lehenago jaso ditzake, pagadi edo hariztiarenak berriz, bere seme edo alabaren batek baino ezingo ditu, ziur aski, jaso. Sutarako egurra eskatzen dutenek berriz, pagoa eta haritza nahi izaten dute, egurra gogorragoa da eta gehiago irauten du,

bero handiagoa ematen du, alegia. Pinua egun papera eta palesak egiteko erabiltzen da gehienbat. Hala ere, Frantziako haritza hemengoa baino preziatuagoa omen da, eta alzarrietarako batez ere, hangoa nahi izaten dute bezeroek, garestiagoa izan arren, hemengoak zulo eta arrailadura ugari izaten ditu eta. Inguruko basoetan tarteka arkaziak ere aurki daitezke, baita urkia ere, gutxiago hala ere, artea berriz, apenas. Urkiak soro eta sail artean izaten dira batzuetan, baserriar bat eta bestearen arteko muga adierazteko erabili izan dira gure artean eta.

Sutarako egurra neguan nahi izaten du jendeak bereziki, hala ere, mozketak bestelako sasoiotan ere izaten dira, hau da ilargiak agindu izan ohi duenean. Zuhaitz bakoitzak gainera, badu bere berezitasuna: hosto zorrotzeko zuhaitzak, haritza esaterako, ilbeheran moztu behar izaten dira, pagoa bezalako hosto zabala dutenak berriz ilberrian. Egurra neurri jakin batzuen arabera moztzen da; egungo tximeneta eta galderetarako 40-45 zm.koak behar izaten dira, garai bateko su baxuak dauzkatenek 70zm.koak ere hartu ohi dituzte. Mozketa lanak egiteko aizkora, moztzerra eta zerra zirkulariaz baliatzen dira Urbietarrak. Moztu eta gero sortak edo pilak egiten dituzte eta pisuaren arabera saldu.

 **MAPFRE**

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

 **GYRE LAVBIDE, S.L.**

SALMANTA ETA KONPONKETAK

STIHL
Kubota
Husqvarna
AGRIA
YAMAHA

Motoaitzurak - motozerrak - sasikengailuak - segak - sulfatailuak - generadoreak - ordekoak - cranskinak

Belarra mozteko garaian ere berezia zarelako

YAMAHA

BELARMOZGAILUAK

Teknologia eta segurtasuna zure eskura

Nazional 1 errepidea, Bazkardo bidegurutzea
☎ 59 01 78 - ANDOAIN



Billabona

Urtebetez geroztik daude ballet ikastaroak

“Balleta beste dantza guztien oinarria da” dio Mikel Ugarte dantzariak

Balleta ikasi eta gozatu nahi duen edonork Billabonako Kultur Etxean dauka aukera paregabea, bertaraino heldu baitzaizkigu balletaren pauso lirainak iaz hasi zen ikastaroari esker.

Bultzatzailea Mikel Ugarte billabonatarra da, berak antolatu eta erakusten du balleta. “Nik ez nuen herrian balleta ikasteko aukerarik izan, eta beste batzuek aukera hori izatea nahi dut” erantzun digu ikastaroaren zergatiak galdetu diogunean. Asmo horrekin bada, Kultur Etxean egin zuen proposamena eta berehala eman zioten baiezkua. Era honetan dugu Billabonan iaztik kultur ekimen berritzailea.

Ikastaroa Mikelek berak ematen du, balleteko zortzi kurtsoak egin ditu eta azkena egiten ari da buru belarri une honetan. Beasaingo akademian ikasia da, eta oraindik ere bertara joaten da Billabonan klaseak ematen dituen bitartean.

Haurrei irakasten

5-10 urte bitarteko hamalau nekato ibili dira pasa den kurtsoan ikastaroan. Klaseak asteen bi egunetan izaten dira, ordubetez. “Gogorra izan da kurtsoa” dio Mikelek, “haurrek ez zekiten ezertxo ere, eta

pausoz pauso balleta erakustez gain, beren gorputza kontrolatzen eta mugitzen erakutsi behar izan diet”.

Aurtengo kurtsoan ordu erdiz luzatu nahi dituzte klaseak, haurrek gehiago ikas dezaten. Asmo hori aurrera eramateko zailtasunak egon daitezke ordea, Kultur Etxeko aretorik handiena erabiltzen baitute, baina hemen beste talde batzuek ere egiten dituzte beraien ekintzak. Beraz, Kultur Etxean horrelako ikastaro bat burutzeko zailtasuna lekuarena da, aretoa ere ez da eta, balleta erakusteko aproposena, ez dago behar bezain ongi egokituta. Zailtasunak alde batera utzita, pozik dago Mikel harrera ezin hobea izan baitu ikastaroak.


**“Balleta,
dantza
guztien
maisua”**

Dantza guztien guraso omen da balleta, beste dantza

guztien oinarri: “Gorputza ezagutzen eta kontrolatzen ikasten da, mugimendurako prestatuz” dio Mikelek. Garrantzitsua da balleta ikasten ahalik eta gazteen hastea, gorputza garatu eta egokitu egin behar baita. Behin 15-16 urtez gero, gorputza garatuta eta finkatuta dago, eta zailagoa da elastikotasuna lortzea. Mikelek berak hogeita lau urte zituenean hasi zen balletean. Oinaze ugari jasan behar izan zituen lehenengo urteetan.

Balleta pausoz pauso

Balletak erakusten digu dantza bitartez gorputza ezagutu eta kontrolatu egin daitekeela. Klase



Umetan komeni da gorputza lantzen hastea

Lirana
KIROL JANTZIAK
Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

ARRATE
Ingleseko klaseak
Zero mailatik "First Certificate" arte
☎ 69 08 60



Herrian bertan balleta ikasteko aukera eskaini nahi izan du

hasieran lurreko ariketak egiten dira giharrak berotu eta prestatzeko. Garrantzitsua da ariketa horiek ongi burutzea ez lesionatzeko eta ahalik eta kontzentratuena egoteko. Ondoren "barra" delakoan ariketa batzuk egiten dira. Posizioak ikasten dira bertan, gorputzaren elastikotasuna garatuz. Barran ikasitako "zentroan" egiten da ondoren, pausoak mugimendu bilakatzeko direlarik. Horretarako gorputzaren kontrol handia behar da.

"Zure gorputza kontrolatzen ikusteak, egunetik egunera pauso zailagoak eta salto ikusgarriagoak egiten dituzula ikusteak, sakrifizio guztiak ahaztarazten dizkizu" erantzun digu balleta ikasteak zenbaiterako sakrifizioa eskatzen duen galdetu diogunean. "droga beza-

lako da, behin gustoa hartuz gero, gero eta gehiago nahi duzu, sufrimendua menperatu ahala" gaineratu du.

Hurrek ere gauza bera sentitzen omen dute. Ongi azaldu behar zaie zer ikasten ari diren eta zertarako, era honetan balleta ikasteak eskatzen duen dedikazioa ulertzen dute poliki-poliki. Nahiz eta jolas moduan hartzen duten hasieran, oso serio bihurtzen da gero, beren gorputzak duen gaitasuna ikusten duten heinean. Azken batean, balleta sentitu eta gozatzera bultzatu behar zaie ongi ikas dezaten eta, gainera, ikasi ahala, balleta gehiago maite dute.

"Jendeari balleta ezagutarazi behar zaio"

Balleta nahiko mugatuta gelditzen da, izan ere, antza denez, jende gutxiri interesetzen zaio. Mikelek dionez "balleta plazaratu egin behar da jende arruntak ezagutu dezan, euskal dantzeekin gertatzen den moduan". Kultur Etxe batean horrelako ikastaroa egoteari oso garrantzitsua deritzo, eta gehiago Bi-

labinan, bere herrian. Era honetan jendeak gertuago izango du balleta.


Era berean beti pentsatu izan da balleta ikasiz gero, onena izan ezean aterabiderik ez dagoela. Baina hori ez omen da egia, "mekaniko guztiak ez dira onak, eta balletean ere ez dute guztiak zertan onak izan behar" dio Mikelek, nahiz eta aitortzen duen balletetik bizitzeko irakaslea izan behar dela edota atzerriko ballet konpainietara joan, Euskal Herrian ez baita oraindik konpainia garrantzitsuarik sortu. Bestalde, bekak ematen dituzte kanpora ikastera joateko, baina oso gutxi dira hautatuak.

Mikelek balletaren etorkizuna hobea izateko, jendeari balleta gerturatu egin behar zaiola dio. "jendeak ezagutu eta eska dezan, ondoren bultzatuko da balleta eta sortuko dira konpainiak".

Ainhoa OIartzabal

Aurtengo ikastaroa

URRIAN HASIKO DA AURTENGO IKASTAROA 5-15 URTE BITARTEKO NESKA-MUTILENTZAT. BERAZ, GORPUTZA EZAGUTU, BALLETA IKASI ETA, GAINERA, ONGI PASA NAHI BADUZUE, BILLABONAKO KULTUR ETXEOA ATEAK IREKITA DAUZKAZUE, ZUEN SALTO ETA BRINKOAK EGIN DITZAZUEN.



José Galparsoro

BALDOSAK - GRES - AZULEJOAK
ETXEGINTZARAKO MATERIALA

ERAKUSKETA: Kaleberria, 36 behea - ☎ 59 25 55 - Etxekoa ☎ 59 18 91
BILTEGIA ETA BULEGOAK: Borda-berri poligonoa, 5 - ☎ 30 01 45

Iturri-Ondo

JATETXEA



☎ 69 13 31
ASTEASU



ETXEOENTZAT
APARTEKO
OGIA!!

Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

Billabona

Xake taldea berpiztu egin nahi dute

Maila preferentera igo zen iaz Billabonako taldea

Aspaldikoa da Billabonan xakeari dioten zaletasuna, horren adierazle da 1971 urteaz geroztik irauten duen xake taldeak.

Roman Torán Peña deitzen zen hasieran, ondoren parrokiako taldearen izena hartu zuen, egun Kultur Etxean biltzen dira. Jesus Mari Ezkain beasaindarra izan zen taldearen lehenengo eragileetako bat. Enrike Oiartzabal taldekideak kontatu digunez hiru urtez geroztik taldeak ez du herrian gauza handirik egin, baina orain lehen zegoen mugimendua berpiztu nahi dute.

Hogei bazkide inguru ditu taldeak, eta iaz maila preferentera igo zen.

Taldeak, besteak beste, ikastaroak antolatu izan ditu herrian eta hori dabilte orain ere buruan. Beste edozein jokotan bezala jardutea da hemen ere garrantzitsuena, norberak baino gehiago dakien baten baten aurka ahal bada, hala ere, behin zerbaite ikasiz gero liburuen beharra ere izaten dela askotan aitortu digu Enrikek.

Enperadore bati asperdura kentzeko sortu zen xakea

Guztiek diote joko aspergarria dela ikusteko, jokatzeari berriz, denbora pasa paregabea izateaz gain, jokalariak egun osoz ere luza daitezke nahi izanez gero-oso dibertigarria da. Hain zuzen ere, Indiako enperadore baten asperduraren ondorioz sortu zen jokoak; zeharo aspertuta omen zegoen agintaria, eta zerbitzari argiren bati esan omen zion denbora pasarazteko jokoren bat asmatzeko. Horrela sortu zen xakea. Jokoak enperadorea liluratu egin zuen eta nahi adina ordainduko ziola esan zion beste gizaixoak gauza handirik eskatuko ez ziola pentsatuz. Xakea asmatzeko adina buru izan zuenak ordea, egindako lanaren ordaina eskatzeko adina buru izan zuen, eta xakeko taulako karratu bakoitzeko ale bat gari eskatu zion: lehenengo karratuaren truke ale bat, bigarrenaren truke bi, hirugarrenaren truke lau, laugarrenaren truke hamasei, eta horrela progresio aritmetikoa eginez ordaintzea

ezinezkoa zela konturatu zen enperadorea.

Xakea, kirol nekoso

Enrikek xakea kirola dela esatean ez du zalantza izpirik agertu, "jokaldi bat ondoren neka-neka eginda bukatzen dut nik behintzat, eta partida interesgarri batean nagoela pul-tsazioak ere areagotu egiten zaizkit". Bestalde, jokoaren taktikari dagokionez gaur egun futboleko hainbeste erabiltzen den "defentsarik onena eraso bera da" esamoldea xakean aspaldi erabilia omen da. Hala ere, xakeak ba du Enrikeren esanetan beste kirolek duten ezaugarri bat, baina honako honetan areagotzen



Konzentrazzioa eta lasaitasuna

Rapid
SUIZA
STIHL

Jonsered
Lamborghini

AGRIA
ALFA

NEKAZAL TRESNAREN KONPONKETA
GARAGE ANOETA, C. B.
Errepidea, z/g Madrid - Irún Telf. 69 04 02 - IRURA

EUROPEAN SCHOOL
INGELES - FRANTSESA
ALEMANIERA - EUSKERA
ORDUTEGIA
GOIZEZ 9-1 • ARRATSALDEZ 4,30 - 9,30
LARUNBATEAN 9-1
Berria, 10 behe - Tel. 69 39 76 BILLABONA

dena: arerioak jokalariai sortarazten dizkion arazoak handiak dira eta jokalariai analisia gaitasun handia behar izaten du horiei irtenbideren bat emateko. Besteak beste, oroimen fotografikoa asko lantzen da. Beste kirol askotan bezala xakean ere emakumezkoek eta gizonezkoek bereiztuta jokatzen dute, Enrikeren ustez ordea, xakean horrelako bereizketarik egiteak ez dauka inongo zentzurik, horregatik ari dira Gipuzkoa mailan banaketa hori desagertarazteko ahaleginetan.

Pertsonaren izaeran eragin handia dauka

Bere ezaugarriak direla eta, horregatik esaten du Enrikek xakeak pertsonaren izaeran asko eragiten duela. Bere kasuan bizitza arrunterako asko balio izan dio xakeak, alegia, arazoan aurrean besteek ez bezalako pazientzia eta lasaitasuna landu omen ditu irtenbide arrazoidunak emateko.

Ezin ordenadoreei irabazi

Xakean ere, gizarteko beste arlo askotan bezala, informatikak badu presentziarik, eta handia gainera. Telebistan behin baino gehiagotan ikusi ahal izan ditugu xakearen maisuak ordenadoreen aurka jokatzen, eta galtzen. Izan ere, ordenadore baten aurka ez galtzea ia ezinezkoa bilakatu da, pertsonak berak baino askoz ere gaitasun handiagoa daukalako analisiak egin eta irtenbideak emateko, eta batez azkarrago. Enrikeren ustez ordenadoreek, eta xakearen inguruan egun existitzen diren interesek berez jokoak daukan erremontazismoa kendu egin diote.

Andoain Luis Brit entrenatzaile berria

“Euskaldunak hobera egingo duelako uste osoa daukat” dio presidenteak


Luis Brit Iriarte lasartearra Andoaingo Euskaldunak futbol taldeko entrenatzaile berria da.

Bost urtez aritu da Lasarteko Michelin taldea entrenatzen eta iaz Ordiziako taldeekin aritu zen.

Iazkoa nahiko urte txarra izan zen talde andoaindarrarentzat, erregional mailara jaitsi eta taldea desagertzeko zorian egon zen. Orain lasartearra beraiekin dutela, gauzak hobera baino ezin dutela egin uste dute. Euskaldunako presidentea den Josetxo Guruzeagak adierazi duenez Luisengan konfidantza osoa dauka, eta zer gertatuko den ez badaki ere, ia ziurtzat jotzen du taldea mailaz igoko dela.

Luisi Andoainera etortzeko eskatu egin zioten. Baietz esan bazuen, alde batetik etxetik gertu dagoelako izan zen, eta bestetik, bestelako sentimenduzko arrazoiek ere badauzka Euskaldunera etortzeko, izan ere, garai batean, bi denboralditan, 69-70-71 urteetan, Luis Euskaldunako jokalaria izan zen.

Aurtengo denboraldiari aurre egiteko Andoaingo jokalariez gain, Billabonako, Lasarteko eta Donostiako jokalariren ere badauka Euskaldunak, “garbi geratu dadila hemen ez dugula inor



kanporatu” azpimarratu digu Josetxok behin eta berriz, taldean dauden jokalariai berri eta joandakoen inguruan kalean zabaldu diren zurrumurruei erantzunez. Bataz besteko 19-20 urte bitarteko jokalariai dira guztiak.

Aiurri: Zeintzuk dira aurtengo helburuak?

Luis: *Lana, lana eta lana lehenengo. Gero futbol talde bat osatzearekin batera giza talde bat osatzea. Eta kirola egin bitartean gazteek ongi pasa dezatela.*

Aiurri: Nolakoak izango dira entrenamenduak?

Luis: *Uztailaren 15ean basi ginen entrenatzen eta gure lema lau izan dira basieratik: apaltasuna; erakundearekiko, aurkako jokalariekiko eta beste guztiakiko errepetua; lana eta taldeko disziplina. Bestalde, gure jokalariai gebienak gazteak direnez, beti ere euren ikasketeei lehenetasuna emango zaie, eta hori aintzakotzat hartuko da.*

Bukatzeko, Josetxo eta Luisek Euskaldunak taldearen inguruan musu truk eta borondate hutsez aritzen diren jende askoren lana herrian inola ere ez dela aintzakotzat hartzen adierazi digute, “eta gu azken finean, herriaren alde ari gara lan egiten gaztediarekin, eta gehienetan hori ez du inork kontuan hartzen”.



☎ 69 04 47
ZIZURKIL

JATETXEA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:
ARRAI ERREAK

EUSKAL SUKALDARITZA
HERRIKOIA

EGUNEROKO BAZKARIAK

Ostegun arratsaldean itxita, bazkariak eman ostean.

07SAB9

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA


Andoain

“31”, Euskal Herrian nahi zaitugu

Plazaolako Tren Txikia Leonen dago

Plazaolako trenbidean ibili zen lokomotorea-
ren historia ez da berria. Gure guraso eta
aiton-amonek ondo baino hobeto ezagutu
zuten lokomotore hori. Bere ke ahokada
handiak, bere ziztukada indartsuak, bere
kanpai hotsa, bere gedarra, alegia, gure Leitza-
ran maiteak gogoratzen ez duen zer aipa
dezaket? Horregatik, Cubillosera, Ponferrada-
ra, lokomotorea ikustea, argazkiak ateratzea,
grabatzea eta berari buruzko informazioa
ekartzea, ez da inolaz ere abentura izan, beste
zeregin bat baizik. Bidaia hori helburu bakar
bat duen lehenengo urratsa baino ez da izan,
alegia “31 lokomotorea” gurera ekartzea.

Nere asmo honen inguruan jende gehiago bil-
tzea espero dut. Dena den, lan hau egitera zerk
bultzatu ninduen azalduko dut; hain zuzen ere,
Leitzaran bailararekiko sentitzen dudana maita-
sunak. Plazaolari dagokion historiaren atal han-
diak desagertu egin dira, horregatik, bizirik di-
rauen zatitxo horrek gure artean egon beharra
daukara pentsatzen hasi beharra daukagu. Hori
guztia dela eta, nere opor egun batzuk Ponferra-
dara joateko aprobetxatu nituen. Han ezagutu
nuen “31”a, gure “txokolatera” eder eta handi pa-
regabea. Bakarrik eta abandonatuta aurkitu nuen.
Tristura eta poza sentitu nituen aldi berean. Baita
lanean jarraitzeko kemena ere.




Xabier "Txokolaterari" buruzko
informazio biltzen aritu da

A d u n a
Altzariak

Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta



Elbarrena auzoa, z/g
☎ 69 15 62 - 66 - Faxa 69 34 66
ADUNA



Altzariak
KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

1943an eraman zuten

Informazioa biltzen hasi nintzen, eta aldi berean lagun asko egin nituen. Bierzo herriko jendeak ere gure "txokolatera" Euskal Herrian egon behar duela ulertzen du. 1943. urteko apirilaren 5ean gure "txokolatera" Andoaindik ateratzeko geltokian sinatutako hitzarmena gainditu behar du herri honen sentimenduak. 1989an, urrian hain zuzen ere, utzi zion lokomotoreak funtzionatzeari, lehenengo Plazaolan, eta gero Ponferrada-Villablauio trenbidean 3.375.468 kilometro egin ondoren. Gaur egun Leoneko Cubillos del Sil herriko geltokiko trenbide baliogabetu batean dago.



Trenbide baliogabetu batean abandonatuta



Herritarrei laguntza eske Euskal Herrira ekartzeko


Lan berbera eta ibilbide berbera egin duten beste lokomotore asko ere ezagutu ditut. Gaur egun guztiz abandonatuta daude. Gauza bera gertatuko al zaio "31"ri? Txatarrariren baten eskuetan bukatuko al du? Betiko galduko al dugu "31" a? Gu guztion lana dela uste dut "txokolatera", "31" zaratatsu eta beltza gure artera, Euskal Herrira, ekartzea. Lerro hauen bitartez herriko erakunde, talde kultural, eta herritar guztiei orokorrean eskatu nahi diet "31" a ekartzeko ahal duten neurrian ahalegina egin dezaten. Hona hemen nerekin harremanetan jarri nahi izanez gero nere telefonoa: 59 33 05.

Xabier Arruti Arruti

ATARRAIA
Edaritegia
Pintxo hotz
eta beroak
 Kaleberria, 11 - ☎ 59 37 38 ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA
KIROLAK
EDURNE
 KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58
ANDOAIN

Dietetika
eta Belardenda
ZAINBERRI
 Naturopataren kontsulta
 Iridologia
 Masajea
 Estetika
 Akupuntura
 Ile tratamenduak
 Pisu terapiak
 Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
 Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99
TOLOSA
ANDOAIN



Ezer ahora sartu gabe

Hainbat andoaindarrek bertako udaletxean egin berri duten gose grebari helduko diot. Notizi handi edo txikia den? Zuen esku uzten dut neurria jartzea. Nahiz eta nik argi dudana, komunika-

bideetako lehen orrialdeak edota irudi nagusiak betetzeko beste badela. Baina nola diren gauzak, gehientsuenek nahiago izan dute ezer ahora sartu gabe gose grebaren inguruko berriak isiltzea, alegia, baraualdia egitea, gizenegi bihur ez dadin noski, Espainian zehar hamaika «zulotan» sakabanatuta eta isolatuta daudenen presentzia eta oihartzuna.

Ezin esan ordea, hor bazterrean daudenik. Andoaingo udaletxean aurkitu ditut nik, zuek ere ondotoxoz ezagutzen dituzuen hainbat gazte eta heldu elkarrekin. Udaletxean, herritarren ordezkariak eta testigantza harturik baraualdian, gaur egungo egoera politikoa aldatzeko ezer ahora eraman nahi ez dutenen baraualdia salatuz. Hauxe esan zidan haietako batek: «Ajuria Eneako Ituna ere gose greban dago, askatasun gose greban».

Izan ere, euskal politikagintzan ezer ahora eman nahi ez dutenen «koadriak» baraualdia zer den ondotoxoz daki: euskal presoen legezko eskubideak (beren etxeetatik hurbil elkartzeko, Euskal Herrira, edo zigorraren hiru laurdenak bete dituztenean kaleratzea) errespetatu daitezkeen eskatu izan zaizkionean, inongo goserik ez digute oraino erakutsi. Horrelako «jakirik» ez dute maite. Nahiago dituzte bestelako okel «betegarriak» kozk egiteko, «presoen gibel zatitxoak espainiar erara gozatuak», adibidez. No! Zenbat eta zenbat tripaundi ezagutzen ditugun, azkenaldian, antzeko menuekin asetu ezinik dabilzanak»

Baina, eskubideak eta, haiztzen direnean egundoko tripako mina erakusten dute. Halako errezetak utikan! Udaletxetik gosez amorratzen atera zirenek ez zuten tripako min handirik izango, ziur, betekada gogoangarria baino. Beren lagun, seme eta ezagun dituzten (eta ditugun) presoekiko harreman hori biderkatzeko gai izan direlako, bat egin dutelako sakrifizio-rik gogorrean ere.

Eta sakrifizioak aipatu eta, dar-dar batean jarri zaizkit eskuak. Hainbeste denbora presoen eskaeren inguruan ezer ahora sartu gabe aritu den euskal politikagintzari gaitz larri bat sortu baitzaio, anorexia deitua. Gaitzaren ondorioz, Madrilan aurrean planta dotorea erakusten baino ez dira kezkatzen, euskal herritarrengan eta presoengan sakrifizioaren zama gero eta astunagoa bilakaraziz.

Egin berri den gose grebaren mezua ahora sartu ez duten anorexiadunek zer sakrifizio eta sufrimendutara behartu nahi gaituzte euskal herritarrik? Andoaingo gose grebalariek, zakuak hartu eta etxerako bidean, galdera bera egingo zioten euren buruari, aho bete arrazoiz, aho bete haserrez.

J.J. Petrikorena

Argitalpenak

Haur literatura

- *“Isabelen tripa zaratatsua”*. David Mckee. Tartalo. Kotoizko hodeia bilduma.
- *“Aitatxo bilin-bolo”*. Gianni Rodari. Erein. Rodariren sorta urdina bilduma.
- *“Hizketan bazekien katua”*. Gianni Rodari. Erein. Rodariren sorta urdina bilduma.
- *“Erregeak zergatik ote dira errege”*. Gianni Rodari. Erein. Rodariren sorta urdina bilduma.
- *“Eguberri on Kiriko”*. Elkar.
- *“Pelu”*. Antxon Cazabón. Elkar. Per-kax saila.
- *“1948ko uda”*. Patxi Zubizarreta. SM. Baporea bilduma.
- *“Perraulten ipuinak”*. Pamiela.
- *“Hegaz egiten ez zuten txorien zuhaitza”*. Concha López. Anaya.

Gazte literatura

- *“Familia”*. Txingiz Aitmatov. Elkar. Branka bilduma.
- *“Sherlock Holmes eta itsas tratatua”*. Arthur Conan Doyle. Elkar. Branka bilduma.
- *“Herny Sugarren istorio miresgarria”*. Roald Dahl. Elkar. Branka bilduma.
- *“Burbila, 1000 kiloko arraina”*. Betsy Byars. Elkar. Xaguxar bilduma.
- *“Lurra salbatzeko zeuk egin ditakezun 50 gauza erraz”*. Lurraren Aldeko Taldea. Txalaparta.

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

ILLUMBE, S.L.
Autoelektrizitatea



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN

Fabrikan hazitako letxuak

Japonian fruta eta barazki gutxi dute, besteak beste bertan lurralde txikian jende ugari bizi delako. Beraz, frutak eta barazkiak inportatu egin behar izaten dituzte. Japoniako konpainia batek ordea, letxuak baratzan ez eta fabrikan hazteko sistema asmatu du. Baratzan baino hiru aldiz azkarago ekoizten ditu gainera.

Letxuaren hazia erein eta azkenean paketatuta irtetzen den arte zazpi robotek maneiatzen dute fabrika, pertsonak landarea ukitu ere egiten ez duelarik. Gela handi bat erabiltzen da horretarako, bertan airea pestizidarik gabe dagoelarik. Kaptoerek etengabe neurtzen dute hezetasuna, tenperatura (21° C-koa izan behar du).

Kaptoerek bidalitako informazioa kontrol-zentruan automatikoki aztertzen da eta egin beharreko zuzenketa ere automatikoki bideratzen dira. Gela 360W-eko sodio-lurrinezko lanparaz artifizialki argitzen da egunean hamabi orduz.

Hazia robot batetik bestera behin eta berriz igarota (zazpi robot dira guztira), azkenean letxua ederra ateratzen dute; astero 252 letxua atera ere, 257 metro karrutuko gelan.

Saiakuntzak 1992.enean hasi ziren eta beste hiru urtez arituko dira probak egiten, letxuak automatikoki hazteko haztegi hau 1996.ena komertzializatu arte.

Prozedura:

1. ROBOTA. HAZIA EREIN.

Robot honek haziak materia elikatzaileko boletan kokatzen ditu. Gero, aire konprimatuaz bolak 25mm sekzioko uretanozko ontzian ipintzen dira urez bustita.

2. ROBOTA. HAZIA ERNE.

Plakak bi egunez egoten dira inkubatzaile honetan ilunpean. Robotak egunero ureztatzen ditu.

3. ROBOTA. MINTEGIA.

Bi mailetan daude plakak: gainean eta azpian. Plakak txandaka pasatzen dira gora eta behera. Goian egunargi eta eguneko egoera dute. Behean, ilunpea eta gaueko baldintzak. Robot honek landareak ureztatu ere egiten ditu eta disoluzio elikatzailearean maila mantentzen du. Bost egun egiten dituzte plakek hemen.

4. ROBOTA. BIRLANDAKETA.

Lau hagatxo oso kontuz uretanozko blokeak hartzen ditu. Blokeak forma konikoak direlako errezago egiten da lan hau. Blokeak, letxuak hazteko barretan ipintzen dira, hauek aurrez zuloak prestatuta dituztelarik. Sustraiak disoluzio elikatzaileetan daude eta landareek barra hauetan iraungo dute hazitako letxua azkenean jaso arte.

5. ROBOTA. TARTEA EMATEA.

Planta gela ahalik eta txikiena izan dadin landare-barren arteko distantzia erregulatu egiten du letxua hazi ahala.

6. ROBOTA. LETXUAK JASOTZEA.

Produktzio-kate honetan hogeita hamabost egun egon ondoren, letxuak helduta daude. Letxuak jasotzeko robotak sustraia ebaki, ur hotzez garbitu eta azken robotera bidaltzen ditu.

7. ROBOTA. ENBALATZEA.

Letxuak plastikotan bildu eta zinta garraiatzailean ipintzen ditu. Horrela bidalketa-gelara iristen dira eta han ukituko ditu lehen aldiz pertsonak automatikoki hazitako letxuak.

Jon Otaolaurretxi
Elhuyar. Iraila.

"Bakar-bakarrik izan zaitezke solidario zeure burua miserabile ikusten baduzu. Bestela, oso zaila da solidario izatea, tranpa da".

Pentsa dezagun azken egun haue-tako gertakizunen aurrean: Fidel Castro dela, Bosniako gora-beherak direla edo Bangladesheko idazlea dela. Horien guztien aurrean, sistema bakar batek ez du balio, segun eta zer erantzun pertsonalak eman behar dituzun. Horrek esan nahi du, gora-behera horietaz arduratuta dagoenak ezin duela sistema baten babesean egon eta horren konfidantzaz bizi guztia horretan bota... Hori guztiz bakartia da eta guztiz isolamendura dakar bat baita ere, nolabait biktima batzuk garelako momentu honetan, ez sistema ideologikoenak, baizik eta sistema makroekonomikoenak, eta orduan, munduan erabat bakar-bakarrik gaude. Nolabait, Kafkak iragarri zuen bidetik. Eta ez dugu ezertxo ere pinta-tzen.

Angel Lertxundi
Egunkaria, irailaren 4a.
Lorea Agirre/A. Gostin.

ARGIA. Nola ikusten duzu gaur egun pilotako euskal selekzioa ez sortzeko oztopo nagusia?

Josetxo Lizartza. Arrazoi politikoak izan daitezkeela pentsatzen dut. Hala ere, ez ditut ongi ulertzen. Euskal Herriko Federazioa sortu zenean Eusko Jaurlaritzaren onespenez izan zela ematen zuen. Nire ustez, gaur egun, errebindikazioa egiterakoan jabetasun kulturalaren aldetik jo beharko litzateke, kultur ikuspegitik, Europan ere beste kiroletan egin den bezala. Eta horretan ere, gerora Eusko Jaurlaritzak bilatu beharko luke hori gauzatzeko bidea, euskal federazioa Nazioarte mailako Federazioan ongi errekonozituta egon dadin

ARGIA. Irailak
18. Patxi Sarriegi.

ANTZOLA, S.A.

Aroztegia

AROZTEGI MEKANIKOA
ETXEBIZITZETARAKO BEREZIKI

ELBARRENA AUZOA - ☎ 69 23 46 - ADUNA

ATE TRINKO ETA BLINDATUAK
BARRUKO ATEAK
LURRAK
NEURRIRA EGINDAKO ESKAILERAK
MOTA GUZTITAKO ARMAIRUAK

POSTA KUTXATILA, 126 - ANDOAIN

Ikatzza

Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Unai Iturbe Sánchez. Abuztuak 22.
- Yaiza Rey Fondón. Abuztuak 22.
- Asier Tejada Solana. Abuztuak 26.
- Lorenzo Esteban Santa Cruz Arizmendi. Irailak 3.
- Aritz Escudero Larralde. Irailak 4.

BILLABONA

- Martín Castellano Castellón. Abuztuak 17.
- Eider Martínez Agirreurreta. Abuztuak 24.
- Ane Lezea Saldias. Abuztuak 29.

ZIZURKIL

- Asier Martín Gutiérrez. Abuztuak 22.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Ivan María Sáez eta Mónica Villanueva. Abuztuak 20.
- Jose Manuel Setien eta Miren Bakartxo Iguaran. Abuztuak 27.
- Ramon Zabaleta eta María Angeles Lakunza. Abuztuak 27.
- Jacinto Sánchez eta María Elena González. Irailak 3.
- Ernesto Amondarain eta María Flor Arrizabalaga. Irailak 3.
- Juan Cruz Imaz eta María Juncal Ulanga Urola. Irailak 3.
- Jose Angel Etxeberria eta Gema Loiarte Apezetxea. Irailak 10.

ASTEASU

- Jose Mari Iruretagoiena eta Miren Maite Iraola. Abuztuak 27.

BILLABONA

- Jose Mari Agirrezabal eta Mari Jose Mujika. Abuztuak 20.
- Francisco de Javier Otaño eta Cenaida María Lima. Irailak 3.
- Angel María Mateos eta María Luisa Pajares. Irailak 7.
- Mikel Lasa Arsuaga eta Jone Miren Galarraga. Irailak 9.
- Joakin Goiburu Aiestaran eta Itziar Zubillaga Saizar. Irailak 10.
- Jose Manuel Murillo eta Miren Arantxa Hernández. Irailak 10.

ZIZURKIL

- Francisco Javier Jurico eta Mari Jose Urdanpilleta. Abuztuak 27.
- Francisco Javier Cerviño eta Manuela Díaz. Abuztuak 27.

GOIAN



BEGO

ANDOAIN

- † Jesus Berasategi Sukunza. Abuztuak 19.
- † Francisco Méndez Zamorano. Abuztuak 23.
- † Felicia Ibarra Tolosa. Irailak 27.
- † Encarnación González Dauso. Irailak 7.
- † Baltasar Dieguez Palomo. Irailak 12.
- † Jose Mariano Urrutia Erauskin. Irailak 14.

SUKALDE TXOKOAN



Idoia Goikoetxea
Herrriko tabernako
sukaldaria
Aduna

BIRIBILKIA SALTSAN


Osagaiak:

- Okela (*biribilkia*)
- Tipulak
- Azenarioak
- Baratxuriak
- Piper berdeak
- Porruak

- 1- Okela lapiko batean irakiten jarri. Porruak, azenarioak eta tipula ere bertan sartu.
- 2- Irakin egindakoan sutik kendu. Ongi eginda dagoen jakiteko okelari tenedorea sartu; ongi sartzen bada, eta odolik irtetzen ez bazaio, behar bezala irakinda clago.
- 3- Irakindako porruak, azenarioak eta tipulak, piperrak eta baratxuriekin batera zarzaganan frijitu.
- 4- Saltsa ilunagoa izan dadin estarlux pixka bat, kafe tanta batzuk edota txokolate apur bat bota daiteke.
- 5- Hau guztia pure egin. Okela zatikatu, eta gainean ilarrak edota azenarioak takoak eginda bota.

HONTZA BIDEO TALDEA

BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIAK
JAIK
ETA ABAR

☎ 59 33 05
ANDOAIN

Salerosketak

ZIZURKIL:

☎ Bulegoko altzariak eta faxa salgai. Oso merke. ☎ 69 11 09.

URNIETA:

☎ 70m²-ko apartamentua salgai Idiazabal kalean. Goi mailako kalitate eta zerbitzuak. Laugarren solairua. 11.800.000 pezeta. ☎ 55 27 69. Arratsaldez deitu.

DONOSTIA:

☎ Apartamentu ederra salgai. Egongela eta logela ederra, sukaldea eta bainugela. Guztia oso ondo banatuta. Interesatuek deitu telefono honetara: 21 43 70.

Alokairua

ANDOAIN:

☎ Alokatzeko pisu baten bila gabiltza hiru neska. Eskaintzaren bat izanez gero, deitu telefono honetara: 37 15 45.

Ikasketak

ANDOAIN:

☎ Biolina jotzen erakutsiko nuke. Oinarrizko maila, etxean, azterketarako eta kontserbategirako bereziki laguntza eskainiz. ☎ 59 29 79. 1.30-2.30 bitartean deitu. Otti.

Harremanak

☎ "Maitasuna, adiskidetasunarekin da hasten musu batekin loratzen eta negar malkoekin amaitzen" Aginagako Maialen Saezentzat maitasunez Usurbilgo Oierren partez. Besarakada handi bat.

☎ "Loretan gehiena arrosa gustatzen zait koloretan berriz morea herrietan Euskal Herria eta euskaldunetarik berriz, zu" Irurako Lander Iturberentzat M.L-ren partez herriko festa zoionsu batzuk opatuz, agur bero bat eta ongi pasa!

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.

OINETARROAK

MODESTA ARANBURU

Kale Berria, 28 - ☎ 59 03 07
ANDOAIN

OLAZABAL ITURGINTZA

BEROGAILUEN INSTALAZIOA
UR BEROA
ITURGINTZA
E-G IV GASA

J.Larreta etorbidea, 35 - ☎ 37 07 18 - 30 04 66
ANDOAIN

LEIZAUR EUSKALTEGIA

H.A.B.E.ri homologatua

EUSKARA MAILA GUZTIAK
EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN, E.G.A...

Hitzegitearekin ez da nahikoa
jar ezazu zure euskara
egunean!!

Extremadura kalea, 4bi - 2bi ANDOAIN ☎ 59 32 76



ALOTZ IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN


ARANBURU agentzia

Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur

Zure hizpidea



EUSKALDUNA (!!???) FUTBOL TALDEA

Euskaldun diren andoaindarrei itxuragatik baino ez bada ere zor zaien errespeto eta begirunea piper t'erdi inporta zaio, nonbait, Andoaingo Euskalduna Futbol Taldeko zuzendaritzari. Abuztu aldera antolatu ohi duen *Larramendi* izeneko futubol txapelketa da horren adibiderik nabarmenena. Gutxienez bi urtez jarraian argitara ematen duten kartel iragarlea gaztelera hutsez egin dute (*Trofeo Larramendi*), eta inork ez die, antza denez, inongo oharpenik egin.

Ez da Andoainen jokabide hori duen elkarte edo talde bakarra, ezta gutxiagorik ere. Kirol talde eta elkarten artean asko dira, Kirolerako Udal Patronatuaren dirulaguntza jaso arren, horrela jokatzen dutenak, hau da euskaldunekiko oso ardura eta ajola gutxiz. Baina ez al da bere onetik kanpo gertatzen hori Euskalduna izeneko talde batek egitea? Eta, gainera, zer izen eman go txapelketari eta Larramendi!!

Ez al dute begirune gehixeago merezi andoaindar euskaldunek eta futubl taldeko sozio euskaldunek? Eta Larramendik? Horrela jokatzen jarraitzeko asmorik baduzue, hobe da, agian, futubol taldeari eta txapelketari izena aldatzea, non aukeraturik izango duzue-eta...

Urkatuaren etxean soka aipatzea bezain mingarri eta jasangaitz izaten dira gisa horretakoak, eta benetan ez dute uste hori denik Euskaldunakoen asmoa. Nik neronek erruz eskertuko nizkieke aurrerantzean gizalegez jokatzea eta lehentasuna behar duenari ematea.

Jon Unanue López.
E. N: 15.972.829.

GOGOAN HAR EZAZU IRAKURLE, BIDALI NAHI DUZUN KARTA EDO IDATZIA, KASU GUZTIETAN, ZURE IZENA ETA BI DEITUREZ ETA NORTASUN AGIARIAREN ZENBAKIAREKIN LAGUNDU BEHARKO DUZULA. ERA BEREAN, ZURE HELBIDEA JAKINARAZ IEZAGUZU, ARREN!

LAGUNAK

KARROZERIA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMICOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA

BILLABONAKO EUSKALTEGIA

•Euskalduntze maila guztiak •Alfabetatzen

•EGA (Azterketa Billabonan)

•Hizkuntz eskakizunak (P.L.)

•Mintzqa praktika

•Eskolumeak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroak

•Euskeraz irakurri eta idazteko ikastaroak

EKINTZAK

-Asteburuetak irtenaldiak
-Diapositibak -Filmeak
-Musika emanaldiak
-Hitzaldiak -Tailerrak

Errebote plaza

☎ 69 25 36

OCTAVIO CANORA

Dr. Huizi, 8 behea
ANDOAIN

PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK

Ageltsaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

Donostiatik Asteasura



Edozein astegunetan unibertitatean eguneroko lana bukatu, eta Billabonako Kale Nagusiko bihur-guneko semaforoa igaro ondoren, eremu ezagun batean sartzen naitzela iruditzen zait. Asteasun urtebete pasatxoaz geroztik bakarrik bizi naizen arren, paisaiarekiko eta urtaroeke edo klimak beren zelaietan uzten dituzten nabardurekiko hurbiltasuna sentitzen dut. Ernio bailara zaintzen eta babesten duen itzelezko masa bat baino zer bait gehiago da. Kontatu didaten kondairen bitartez eta bere baitan bizi diren pertsonaia misterioetsuen presentziaren bitartez bizidun bilakatu den Ernio.

Pixkana-pixkana hiriak eskaintzen ez zizkidan beste plazer ezberdin batzuk aurkitu ditut. Konturatu gabe abiatzen naiz nere eguneroko paseoetan udazkeneko eta udaberriko eguzki epeletan edo udako eskerroneko kerizpean uraren gurgurak laguntzen nauen erreka bazterretik. Eskuak poltsikoetan eta arin-arin, jarkitzen natzaie neguko hezetasun eta hoztari. Ez dut ahaztu joan den udaberrian, eguraldi ona iritsi zenean, zelaiah ohigabeko ihardueraz bete zireneko esperientzia. Illoak irikitzen ziren, haziak ereiten, eta neguak baino isilarazi ezin zezakeen bizi presentzia zegoen. Geroztik arbolak fruituak ematen ikusi ditut,

artoa hazten, tomateak heltzen, babarrunak gora igotzen. Belar zama freskoa daramatela, iheskor negua iragartzen duten traktoreekin egiten dut topo bidean. Oso bestelakoa da hiriko esperientzia, non prozesuaren amaiera baino ez dugun geureganatzen, dendan barazki kiloak pisatzen digutenean edota kaxetan fruta ikusten dugunean; non banketxeek erakargarri egutegietan ezartzen dituzten nekazal paisaiak.

Beste batzuetan herriko tabernetako batean hartzen dut kafea eguneko hirugarren egunkaria gaitetik begiratu eta berriak komentatzen ditudan bitartean. Hurbileko dendetan erosketak egiteak beti dauka lagun arteko kutsua, ez da inoiz ekintza anonimoa.

Eta osotasunean urtea begiratzean, jaien bizipena agertzen da, non jai bakoitza jai aurrearen eta ondorenaren erreferentzi bilakatu den. San Pedrotan adin gutxietako jendeak biltzen zituen ekintza ezberdinen bitartez herria nola eraldatu zen ikusi nuen. Gabonak, ihauteriak, aste kulturala, erakusketa etnografikoa frontoian une inpresionistak bailiran nabarmentzen dira nere oroimenean. Errege gaueko kabalgata Elizmendi eta Kalea lotzen zituen ipurtargia bilakatu zen. Ihauterietan Kale Nagusia kolorez txinpartaka hasi

zen Peio Errotako neska-mutilak bertara oldartu eta pertsonaia bixiz betetako leku magikoa bihurtu zutenean.

Herri baten bizitzan tabernek erdigunea adierazten duten eran, enparantza jolas lekua da. Neska-mutilek urtaroekekin zerikusia daukan beste ziklo bat seinalatzen dute, beren jolasen bitartez adierazten dena: soka-saltoa, diaboloa, ezkutaketa, patinak, kromoak eta kartak... Beren presentzia urtaroe-tara, astegun edo jai egunetara, eskola orduetara egokitzen da. Frontoian, udaletxeko arkupeetan, hurbileko parkean luzatzen den eten-gabeko ekintza gune bat da. Gune hauetako bakoitzan haurren hizkerak izaera berezkoa eta ezberdina dauka.

Eta oraindik gaua Asteasuko enparantzaren geratzen da gogoratzeko, bere baitan iturriko uraren zurrumurru etengabe eta leuna daukala, non kaleargien islada horriskak euriaren ondoren, ni bizi naizen Kale Nagusiko harriz eginitako bideari txarol itxura ematen dion.

Teresa del valle

Antropologoa eta EHUko irakaslea.

MENDIKO ETA ERREPIDEKO BIZIKLETAK

KURPIL

DENDAKO TELF. 59 43 41
TAILERREKO TELF. 59 37 99

KALEBERRIA. 22
20140 ANDOAIN

Gema
Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

Txiste lehiaketa

Abendua bitartean AIURRIK antolatu duen txiste lehiaketan parte hartu nahi baduzu, era honetako txistek, edo graziosoagoak bidali behar dizkiguzu:

GOSEAREN BELDUR

Gure herrian zoritxarrez gero eta zabalduagoa dagoen egoera batean aurkitu zen Etxeberria familia. Lanik ez, dirurik ez eta jan eta jazteko ere aukera txarra. Hori zela eta, gelditzen zitzaizkien arropa hoberenak ez puskatzearren, etxe barruan bakoitza ahal zuen bezala ibiltzen zen.

- Zuloz beteriko galtza batzuk zituen aitak, galtza baino gehiago zulo zirenak, eta zulo horietako batzuetatik han agertzen zitzaizkion bi kozkorrak, alde bakoitzetik bat. Halako batean hola galdetzen dio alaba txikiak:

- Aita, zer dira bi kozkor horiek?
- Horiek, alabatxo? Potroak dira.

Emazteari ez zitzaion batera gustatu.

- Gizona, ez zaitez hain gordina izan; edukazio ederra hartuko dute.

- Ume gaisoek daukaten gosearekin, esaiezu arrautzak direla!



TIBERIADES GARESTI

Katalandarrez osatutako eskurtsio bat heldu da Israela. Belen, Nazareth eta beste hainbat herri ezagutu ondoren, Tiberiades lakura iritsi dira. Behin hor, lakuan zehar bazterrez bazter jira bat egiten duen bapore bat ikusten dute.

- Aizu, gizon! Zenbat balio du lakuari buelta bat emateak?

- 50 dolar.

- 50 dolar? Baina erotuta al zaudede? Buelta bat emategatik 50 dolar?

- Baina pentsa ezazu laku hau ez dela edozein. Hemen Kristo oinez ibili zen.

- Ez da harritzekoa. Prezio horiekin!

GORPUTZ TXARRA

Sartzen da gizon bat tabernara, herrena, besamotza, izugarrizko konkorra, begiokerra eta ilearen ordezt buruan eltxoentzat aireportu fenomeno bat duena. Tabernara inguratu eta ahots ahul batez:

- Whisky kopatxo bat nahi nuke.

Tabernariak atera bezain laster trago batez edaten du. Baina hartu eta gero mugimendu arraro batzuk egiten hasten da, hotzikaren modukoak.

- Hau gorputz txarra utzi didana kopatxo horrek.

- Kontuz, aizu! -tabernariak- Hona etorri aurretik ere horrelakoa zinen.

Hilero AIURRIko erredakzio batzordeak hautatutako txisterik bixi, xeble eta txispagarrienak kaleratuko ditugu. Txistek hilaren 20a baino lehen helarazi behar dizkuguzue zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz.

Gure irakurleak dibertitzeaz gain, bi sari eder jasotzeko aukera izango dute irabazleek: lehenengoak Andoaingo Aitzbeltz elekatresna dendak eskainitako "compact diskman" paregabea, eta bigarrenak Asteasuko Patxine jatetxean bi lagunentzako afari bikaina.

Urtarrileko alean emango ditugu ezagutzera irabazleak.



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**

AITZBELTZ

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

IKASTAROAK

BILLABONA ZIZURKIL:

- **Musika eskola.** Sarrera: sikomotrizitatea, kantua, flauta, kitarra...; Solfeo; Txistua; Musika-tresnak: kitarra, biolina, soinua, klarineta, pianoa, saxofoia.

- Euskal dantza eskola.
- Ballet eskola.
- Zeramika tailerra.
- Gimnasia goizez eta arratsaldez.
- Judo eskola (5-14 urte)
- Argazki laborategia.
- Billabonako xake-joko taldea.
- Oskarbi abesbatza.
- Ikastaroak:
 - Bideoaren erabilpena.
 - Makrame/Tapiza.
 - Marrazkigintza/Pintura.
 - Arte plastikoak (sarrera).
 - Musikoterapia.

Matrikula eta informazioa Billabonako Kultur Etxean (☎ 69 16 55) eta Zizurkilgo Kultur Etxean (☎ 69 35 54). Arratsaldez.

ASTEASU:

- **Ingeles ikastaroak haurrentzat** Kultur Etxean. Ordutegia jendearen arabera izango da, eta taldeak adinaren arabera banatuko dira. Izenematea Kultur Etxean.

ANTZERKIA

ANDOAIN:

- **Urriak 8:** "Pecata Minuta" antzezlanaren Karrera taldeak aurkeztuta La Salleko antzokian arratsaldeko zortzietan.

LEHIAKETAK

- **Kartel lehiaketa: "Cafe-Teatro" jaialdia Gipuzkoan** antolatzen duten Udalek 1994. urteko kartela iragartzeko kartela hautatzeko lehiaketaren deialdia egin dute. Kartelaren altuera 42 zm. eta zabalera 80 zm.takoa izango da; irudia berriz, neurri horietara egokitu beharko da. Bestalde, honako testu hau jarriko da ondo nabarmenduz: "Cafe-Teatro" Gipuzkoan VII. Jaialdia 94. abenduak 15,16, 17, 18. Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Tolosa eta Donostiako Udalak eta Foru Aldundia. Lanak koloretan eginda egongo dira. Lanak Udaltolatzaleetako Kultura Departamentuetan aurkeztuko dira azaroaren 11a baino lehen. Lanarekin batera, kartazal itxi baten barnean egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira, kanpoan eta kartelaren atzealdean, berriz, lanari eman zaion izena. 36.000 pezetako sari bakarra izango da.

ERAKUSKETAK

ANDOAIN:

- **Urriak 24-azaroak 3:** Euskal musika tresnen erakusketa Kultur Etxean.

ZIZURKIL:

- **Urria 3-7:** Haurren ilustrazio tailerrean iaz egindako lanen erakusketa. Kultur Etxean egongo dira ikusgai lauetatik zortzietara.

ZINEA

BILLABONA:

GUREA zinema aretoan.

- **Urriak 1-2-3:** "Rapa-Nui". Zuzendaria: Kevin Reynolds. 7.30 eta 10.30etan.

- **Urriak 7-8-9-10:** "Wyatt Earp". Zuzendaria: Lawrence Kasdan. 7.30 eta 10.30etan.

- Hurrengo asteburuetan: James Cameronen "Mentiras arriesgadas" eta Jhon Laudis-en "Super detective en Hollywood".

ASTE KULTURALA

BILLABONA:

- **Urriak 22-30:** Traspasos taldearen dantza saioa, piano eta biolin kontzertua Xabir Lizaso eta Ludwic Hamelarekin, herriko artisten erakusketa, bi antzerki saio, artesau azoka eta beste ikuskizun batzuk izango dira. Guztiak Gurea zinema aretoan. Dohainik.

BESTE

ANDOAIN:

- **Urriak 22:** Tolosako Nazioarteko Abesbatza Txapelketako partaidea-takoren baten kontzertua kiroldegian.

- **Urriak 27:** Leyçaur III. Liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.

ZIZURKIL

- **Urriak 3:** 3-5 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa Pello Añorgarekin arratsaldeko hiru etan Kultur Etxean.

Orremendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN



AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI

Kultur bazkunak
Argitaratzen du

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN



ANDOAIN



BILLABONA



ZIZURKIL



ASTEASU



LARRAUL



ADUNA